

# HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

310.

2001eko urtarrila  
Zenb.  
390 pta./ 17 libera/  
2,34 euro (B.E.Z. barne)

2001 Hizkuntzen Urte Europarra



## Hizkuntzak, edonorako giltza

Gaurgero:  
Sagarretik  
sagardora

Kulturontzia:  
Zer dakizu  
San Sebastian  
egunari buruz?

Hamaika  
trikimailu:  
Tiko

Zein da  
nire  
euskara-maila?



# AITA VILLASANTE, IN MEMORIAM

*A*ita Luis Villasante fraide frantziskotarra joan den abenduaren 2an hil zen A rantzazuko Santutegian, 80 urte zituela.


*A ita Villasantek, lan ikaragarria egin zuen euskararen estandarizazioan. A rgi ikusi zuen euskarak iraungo bazuen, batu egin behar zela, euskalkiak baztertu gabe, hizkuntza normalizatua aberastuz.*

*Euskaltzaindiaren 1968ko A rantzazuko Biltzar gogoangarria eraiki ziren euskara batuaren oinarriak. Biltzarrean jasotakoaren haritik, Mitxelenaren jakinduria eta Villasanteren borondate tinkoa, funtsezkoak izan ziren guk orain normalizat hartzen ditugun euskarari buruzko irizpideak finkatzeko.*

*Euskaltzaindiko Buru izan zen 1970-1988 urteetan.*

*Euskara irakasten eta ikasten ari garen guztion izenean, eskerrik asko!*

*Goian bego Aita Luis Villasante*



ERREDAKZIOA:  
 Iñaki Ugalde  
 Ion Imanol Iturrioz  
 Esther Isasa  
 Eskarne Lopetegi  
 Josu Perales  
 Juxto Egaña  
 Agurne Aizpitarte  
 Antton Inurritegi  
 Juan Miguel Gutiérrez

DISEINU ETA MAKETAZIOA:  
 Zirrimarra (Andoain)

MARRAZKIAK:  
 Josexo Sastre  
 Iñaki G. Erro (wentxi)  
 "zirrimarra"



IRARKOLA:  
 Sacal S.L.  
 VITORIA -GASTEIZ

LEGEZKO GORDAILUA  
 BI- 2251/81  
 ISSN: 0212-6788

Autonomi Elkarteko Administrazio  
 Orokorra  
 HABE  
 www.habe.org  
 Tel. 943 02 26 00  
 Faxa: 943 02 26 01  
 e-mail: argitalpenak@habe.org  
 Harpidetzak: harpidetzak@habe.org

310



## 5 LIBURUTEGIAN



## 6 GAURGERO MOTZEAN

## 8 GAURGERO

- Animalien arteko komunikazioa, hizkuntza ote?
- Sagarretik sagardora
- Eguberrien biharamunak urtarrila du izena

## 15 INTERESGUNEA

Hizkuntzak, edonorako gizona

## 23 HAMAIIKA TRIKIMAILU

Roberto Martínez Rípodas, Tiko

## 24 ELKARRIZKETA

Bikoteak elkarrekin beharrea

## 28 UNESCO Albistaritik

Sei mila hizkuntza: ondare aberatsa arriskuan

## 30 KULTURONTZIA

- Agatha Christie
- Zer dakizu San Sebastian egunari buruz?
- Euskararen sendabelarrak, Koldo Zuazo
- Kaixo liburua

## 36 SALTSAN

## 41 IKASLEAREN KOADERNOA


eta erdian: ZEIN DA NIRE  
 EUSKARA-MAILA?



Helbide honetara bidali behar da:  
**HABE** aldizkaria  
 Vitoria-Gasteiz kalea, 3  
 20018 DONOSTIA

# HABE

Erakunde Autonomiaduna



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:.....  
 Zein euskaltegiari ari zara ikasten?.....  
 Identifikazio Fiskalaren Kodea / Nortasun-agiria: .....  
 Helbidea: ..... Telefonoa: .....  
 Herria: ..... Posta-kodea: ..... Probintzia:.....  
 HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean 11 ale: 3.400 pezeta). Euskaltegi bateko ikasle bazara, harpidetza 1.700 pezeta.  
 Honela ordainduko dut:  
 Errenboltoz  
 HABEren izenean luzaturiko txeki bidez  
 Transferentzi bidez (kutxa 2101.0381.01.0003069002)  
 Kontu korrante bidez: Bankua edo Aurrezki Kutxa:


Sukurtsala: .....K.D.: .....  
 Zenbakia: .....

OHARRA: Egin daiteke harpidetza HABENET-en bidez ere: www.habe.org



# Zure txokoa

Oraingoan eskutitz bakarra aukeratu dugu sail honetarako. Dena dela, eta luze samarra izateaz gain, aurkezten duen gaia interesgarria iruditu zaigunez, besterik ez argitaratzea erabaki dugu.



HABE Aldizkariko Zuzendari estimagarria,

Irungo Euskaltegian dihardut gure hizkuntza erabiltzen jakiten saiatzen eta ahalegin horretan, nire irakasleari esker zure aldizkaria ezagutzeko aukera izan dut.

Argi dago zein den aldizkari honen helburua, eta horregatik lehenik eta behin estimatzen dizuet egiten ari zareten lana. Izan ere, tresna lagungarria izan daiteke aldizkari hau, bai ikasleentzat zein irakasleentzat.

Hala ere, ausartu naiz proposamen bat egitera, zuzentzen duzun aldizkaria baliozgarriagoa eta erakargarriagoa izan dadin euskara ikasten dihargun guztiontzat.

Nire ustez HABE izeneko aldizkaria, mail altua prestatzen ari direnentzat bideratuta dago, EGA edo antzekoak alegia. Zergatik diot hau? Bada, niretzat, edota nire maila berean daudenentzat, artikulu batzuk zail samarrak iruditzen baitzaizkigu. Hori dela eta lagundu beharrean dsanimatu gaitzake, aurkako ondorioa lortuz. Euskara ikaskuntza eta beste gai ikasgaitz batzuetan, aurrerapenak astiro eta nekeaz direnak, garrantzi han-

dia dauka ikasleak jakiteak, non dagoen, zer menperatu duen eta oraindik ez duen menperatu; bestela ikaste-motibazioa eta jakinmina gal dezake.

Uste dut -eta berriro barkamen eskatzen dizut nire ausardiagatik- argitaratu zenitzaketela artikulo eta ariketa desberdinak, mailaren arabera. Hasieran, artikulo eta ariketa aurretik, erreferentzia moduan jar liteke zein mailari dagokion, modu honetan bakoitzak berak auto-ebaluazio gisa erabili lezake aldizkariko atal guztiak. Jakin nahi duzu zein motako ariketak edo artikulo eskatzen dute EGA edo zortzigarren urratsa menperatzeko? Erraza, begira ezazu zein artikulo dagokion EGARI, eta ea nola moldatzen zaren.

Nik ez dizut proposatzen aldizkariko egitura aldatzea, are gehiago aldizkaria orain bezalakoa izan beharko zen hala egitura nola mamia, oso ona eta interesgarria da eta; mailari erreferentzia dagokio jarri eta behar bada artikulo eta ariketa ulerterrazak barnean sartu, besterik ez, hori da nire eskaera.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen lana eta arretagatik, atseginez hartzen dut zu agurtzeko aukera.

Pedro, Irun

*Pedro, irakurle hori, aurretik gure esker ona adierazi duzun interesagatik, ez baita erraza zuek, euskara ikasleok, pentsatzen duzuen guri helaraztea. Eta ulertzekoa ere bada: lotsa, ausardia falta, edo besterik gabe, tarterik ez izatea horrelako lan bat egiteko. Eskerrik asko, beraz.*

*Eta orain, goazen harira. Zure eskutitzan eskari bat egin diguzu: testuak eta ariketak mailakatzea. Aitortu behar dizut ez dela kontu berria guretzat. Hasiera batean pentsatu genuen ariketak bai, mailakatuko genituela, baina testuak ez genituela mailakatuko. Arrazoa oso sinplea da: testu bera izan liteke egokia maila ezberdina duten ikasleentzat. Eginkizuna, berriz,*

*bada zehatzagoa eta beraz, errazagoa mailakatzen. Azkenean, ez mailakatzea erabaki genuen eta gure irakurleengandik jasotzen genuen informazioaren arabera aurrerago erabaki sendo bat hartzea. Ez zara lehena izan eskaria luzatzen, hainbat euskaltegitako irakasleek ere adierazi baitigute mesedegarri dela maila zehaztea. Horregatik erabaki dugu sail honetara ekartzea auzia eta zuei, irakurleoi, iritzia eskatzea: **Zuen ustez, lagungarri al da testuak mailakatzea? Eta ariketak?***

*Bidali, mesedez, zuen erantzuna, jasotzen ditugun erantzunekin hartuko baitugu azken erabakia. Idatzi orain, gero beranduegi izango da-eta!*

**Oharra:** Azaroko alean argitaratu genuen Bermeoko lagun batek Antonio Banderasen altuera aurkitu zuela eta 1,67mkoa zela, hain zuzen. Berriro ere kasu egin digu lagun honek, oraingoan datua zuzentzeko. Badirudi 10 zentimetro hazi dela gure Antonio, el bello, eta beraz, 1,77m neurtzen duela. Bai, halaxe da, banengoen ni, ezin zela hain txikia izan Melanieren laranja erdia!



# Liburutegian



**Olentzerok liburu gutxi ekarri al dizkizu? Lasai, oraindik ere Errege Magoen opariak falta dira-eta. Hona hemen proposamen batzuk, zuk zeuk erosteko edo zure ingurukoiei eskatzeko:**



· **Harkaitz Cano.** idazle gaztearen *Piano gainean gosaltzen* Erein, 2000. Kronika-bilduma honek merezi du aipamen berezia.

· **Ixiar Rozas.** *Edo zu edo ni* Erein, 2000. Emakume batek bere

bizitza pertsonalean egiten duen aukeraketaz mintzo da. Interesgarria benetan.

· **Iturriaga, Unai.** *Berandu da gelditzeko*, SUSA argitaletxea, 1999, 3. argitarapena. laz agertutako testu ederra. Gaiak baino, idazkerak merezi du. Bilboko giroa eta gazte baten gora-beherak agertzen dizkigu. Hitanoa, bizkaiera... han hemenka dabilta.

· **Alonso, Jon.** *Camembert helburu*. SUSA argitaletxea, 1999. Toulouse-Lautrec margolariaren gaineko nobela saiakera mozorrotu du idazleak. Idazkera ederra darabilena.

· **Irigoién, Joan Mari.** *Babilonia*, ELKAR. Aurten irratirako nobela bihurtu izana, askorentzako ezagutzeko modua ere baliteke; horra gomendioa.

· Sibarita eta aberats direnentzako bi aholku polit dira ondoko hauek: **Anjel Lertxundiren** *Letrak kalekantoitik*, Alberdania, 1996 (literaturatik

kanpo baina estilo ederrenean jasotako euskal kultutaren gaineko ikutu ederrak) eta **Joseba Sarrionandiaren** *Hau da ene ondasun guzia*, Txalaparta, 1999 (poesia eta musika gustuko izanez gero: liburua eta CDa)



**Itzulpen hauek ere gogoan hartzekoak dira**

· **Saramago, José.** *Lisboa setioaren historia* (Ibaizabal, 2000, **Jon Alonsoren** itzulpena). Beste bide batetik Saramago ezaguna eta gustuko duenarentzat erakargarri.

· **Austen, Jane.** *Harrotasuna eta Aurrejuzkuak* (Ibaizabal, 1996, **Ana Isabel Moralesen** itzulpena). Argitaratu zenetik ia bost urte pasatu badira ere, eta aurkitzerik dagoen jakin barik, guztiz gomendagarria dela uste dut. Itzulpen ederra.



**Hiztegi bila bazabiltza, hauetxek dituzu oso egokiak:**

**Ibon Sara-solaren** *Euskara Ikaslearen Hiztegia* (Vox, 1999). Zuentzako ezina-proposagoa.

**Elhuyarren HIZTEGIA** *Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco* (Elhuyar, 2000) 1996.eko argitalpena izan zen lehena. Aurten bigarrena, berritua, plazaratu dute: aintzin-solasak dioen bezala, tarte honetan erabiltzaile eta ohargile izan dituzten milaka lagunengana lankidetzari eta hainbat hausnarketa- eta zuzenketa-saio arduratsuri esker paratua.



# 2001

## XXI. MENDEA HASTEAR?

Gezurra badirudi ere, gai honek du izugarritzko **iskanbila** sortu du gure artean ere. Askok uste dute XXI. mendea 2000ko urtarrilean hasi zela. Baina, beste asko ez daude ados horrekin. Mende berria 2001eko urtarrilean hasiko dela diote. Izan ere, I. mendeak lehenengo urtetik 100.a artekoak hartu zituen, eta II. mendea 101. urtean hasi zen.

Berdin-berdin **deskuidatuta zeuden**, 90. hamarkada 1990eko Urte Berri egunez hasi zela esaten zutenak eta, ondorioz, XXI. mendea 1999ko Urte Zahar gaueko 12 kanpai-hotsekin batera hasten zela ziotenak. Literatura Nobel Saridun José Echegaray jaunak arrazoi zuen, mende honen hasieran, XX.mendea 1901eko urtarrilaren 1ean hasi zela, esan zuenean.

## ZENBAT HIZKUNTZA MINTZATZEN DIRA MUNDU OSOAN?

**H**izkuntzalariek diotenez, 5.000 hizkuntza eta dialekto mintzatzen dira munduan, horietatik 850 Indian. Gehien hitz egiten den hizkuntza iparrreko txinera edo mandarina da, 700 **hiztun** ditu. Ingelesa 330 milioi lagunek hitz egiten dute, gaztelania 300 milioik. Zailena chippewa da, AEBko Minnessota estatuko indioen mintzaira, 6.000 aditz-forma baino gehiago baititu eta horiek **buruz ikasi** behar dira. Oregon estatuko indioek hitz egiten duten til liamook ez da hain samurra ikasteko, 30 aurrizki baditu eta.

Ez da inor munduko hizkuntza guztiak dakizkienik, jakina. Neurofisiologoek diotenez, gure **burmuina gai da** hogeitahogei bost hizkuntza batera ikasteko. Eta historiak horixe bera **egiaztatzen** du. Sir John Bowring Mezzofanti Kardinalak (1774-1849) eta Harol Williams doktore zeelandaberritarrek (1792-1872) 26-28 hizkuntza **menderatu** zituzten. Gaur egun, George Henry Williams Estatu Batuetako Hiztegi Saileko Burua gauza omen da 31 hizkuntzatan txukun aritzeko.



## ESPERANTOAREN SORTZAILEA?

**L**ejzer Luwick Zamenhoff (1859-1917) sendagile okulista errusiar-poloniar **jatorriz** juduak Likusi zuen, Varsovian hizkuntza desberdinetan mintzatzen zela eta nahasketa hori bizilagunen arteko **liskar**-iturri bilakatu zela. Eta pentsatu zuen hizkuntza unibertsal bat balego, pakea izango litzatekeela munduan. 1887an, bere **aitaginarrebaren** laguntzaz, bere lehen liburuska argitaratu zuen *lingvo internacia* hizkuntzaz, Doktoto Esperanto ezizenez

sinatua, bere izen ona zaintzeko. Liburuan kupoi simple bat **erantsi** zuen, irakurleek sinatuta itzultzeko, hizkuntza unibertsala ikasiko zutela **hitz emanez**.

Sortzaileak uste zuen baino askoz ere zabalkunde gutxiago izan zuen. Hala ere, gaur egun 2,5 milioi pertsona baino gehiagok hitz egiten du esperantoa, hizkuntza lagungarri bezala Unibertsitate batzuetan **hautazko** hizkuntza bezala irakasten da eta merkataritza alorrean eta nazioarteko bilkuretan dezente erabiltzen da.



# gero



## LEHENENGO HIZKUNTZA IZAN AL ZEN?

Aurkitu den idazketarik zaharrena, —eta idazketa da hizkuntza bati buruzko erreferentzia bakarra— Ruk herriko, Bibliako Ereeh-eko Testu Zaharretako zati bat da. Hiri hori Eufrates ibaiandoan dago, gaur egungo Irak-eko hego aldean. **Buztinezko** taulatxoak Bagdad, Heidelberg eta Berlingo museotan daude gordeta. Testu hauek C. a 3.000 bat mila urtekoak dira. Testu horien %85 diru-kontuak dira. Horrek esan nahi du arrazoi ekonomikoengatik nahi izan zutela idatzita utzi. Testuen **gainerantzekoa** hitz zerrendak dira. Adibidez, **zuraren** konzeptuaren barruan garai hartan ezagutzen zituzten zuhaitzen izenak ageri dira. Beste taulatxo batzuetan 58 txakur-arraza zehazten dira. Eta beste batean 180 ofizio baino gehiago azaltzen ditu, **gizarte-mailak** ere aipatzen ditu.

## EUROPAREN IA ERDIA ELEANITZA DA

Hiritar europarren %44 gai dira ama-hizkuntza ez duten beste batean hitz egiteko.

Luxenburgon, ia guztiek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dute elkarrizketa-maila onean aritzeko moduan.

Herbereetan, Danimarkan eta Suedian hamarretik zortzi horixe bera egiteko gauza dira.



## HIZKUNTZARIK IRAKATSIENAK

Oro har, ingelesa da lehen hizkuntza atzerriarra Batasun Europarreko Estatu partaide guztietako hezkuntza-sistemetan, eta frantsesa, ia beti, bigarrena. Ikasleen %91k ingelesa ikasten dute, %34k frantsesa, %15 alemana eta %10k gaztelania.

“Herri bakoitzaren barren-barreneko jeinua, sakoneko anima, bere hizkuntzan dago batik bat.”

Jules Michelet (1789-1874), historialari frantsesa.

“Ez dago herri bateko kide izateko era jasoagorik herri horren hizkuntzan idaztea baino.”

Heinrich Böll (1917-1985), idazle alemaniarra.

**AITAGINARREBA.-** Suegro.  
**BURMUIN.-** Garuna. Cerebro.  
**BURUZ IKASI.-** Aprender de memoria.  
**BUZTIN.-** Arcilla.  
**DESKUIDATUTA EGON.-** Oker egon. Estar equivocado/a.  
**EGIAZTATU.-** Frogatu. Demostrar.  
**ERANTSI.-** Gehitu. Añadir.  
**GAI IZAN.-** Gauza izan. Ser capaz.  
**GAINERANTZEKO.-** Restante.  
**GIZARTE-MAILA.-** Clase social.

**HASTEAR.-** Hasteko zorian. A punto de empezar.  
**HAUTAZKO.-** Opcional.  
**HIZKUNTZALARI.-** Lingüista.  
**HITZ EMAN.-** Comprometerse.  
**HIZTUN.-** Hablante.  
**ISKANBILA.-** Eztabaida. Discusión, follón.  
**JATORRI.-** Origen.  
**LISKAR.-** Sesioa, borroka.  
**MENDERATU.-** Dominar.  
**SORTZAILE.-** Creador/a.  
**ZUR.-** Egurra. Madera.



# Animalien arteko komunikazioa,

Esan daiteke komunikazioa dela seinale bat hartzaile bati bidaltzea, horren jarrera nolabait aldatzen duena. Animaliek **igortzen** dituzten seinaleak mota askotakoak dira, adibidez: **ukituzko** komunikazioak, barraskiloen artean, sexu-irrika adierazteko eginak; komunikazio kimikoak, gaueko tximeleten artean; entzutezko komunikazioak, **mozoloen** artean; ikustezko komunikazioa, papioien artean.

*Erleen dantza* izeneko komunikazio-sistema oso famatua da, Karl von Frisch etologoak aurkitua. **Erlauntza** bateko erle-multzoko batek nonbait jatekorik aurkitzen badute, berehala adierazten die besteei, jateko hori zein aldetara eta gutxi gorabehera non dagoen. Dantzan hasten dira erlauntzan, eta erritmoaren bidez adierazten dute jateko hori gutxi gorabehera non dagoen.

**Paumaren** komunikazio-sistema oso ezaguna eta deigarria da, bere buztan ikusgarria zabal-zabal erakusten dio **emea** bereganatu nahi duenean. Txantxangorri europarraren bizkar-aldea **nabarra** da berez, baina haserre eta borrokarako prest dagoenean, gorri-gorri jartzen da.

## Hitz egin al dezakete animaliek?

Askotan esan ohi da animaliek elkar ulertzen dutela, elkarrekin **gizakien** antzera hitz egiten dutela. Egia ote? Adituek ezetz diote. Oro har, seinale

horiek **sortzetikoak** dira, ez dute, beraz, esanahia ikasi beharrik izaten. Komunikazio bat hizkuntza izango bada, beharrezkoa da elkarri komunikazioak bidaltzen dituztenak, gai izatea objektuak sinbolizatu dituzten zeinu adostuak igortzeko eta hartzeko. Horrek arrazoitzeko ahalmena eskatuko luke, eta horretarako, **burmuinaren** neurri handia, **goi-ornodunetan** bezala. Orain arte, ez da mota horretako komunikazio-zeinurik aurkitu animalien artean.

Baina, badira maila horretako gizakiaren eta goi-mailako animalia batzuen arteko komunikazio-ereduak. Ezagunenak primate antropeiden kasua da. Badira beste animaliarekin ere gertatuak ere, Konrad Lorenz-en *El anillo del rey Salomón* liburuko **bele** protagonista, esate baterako.

Hizkuntzalarien esanetan, komunikazio bat hizkuntza izateko beste baldintza bat komunikazio-kideak zeinu batzuk beste batzuekin konbinatzeko gai izatea litzateke, arau batzuen arabera (gramatika), zeinu konplexuagoak lortzeko (esaldiak). Hori egin ahal izateko, adimen-maila handia behar da, eta hori primate antropeideek eta, agian, izurdeek bakarrik dute.

Primateek ikasiko al lukete hizketan irakatsiko balizaie? Orain arte psikologoek egindako ahaleginak ez du emaitza onik izan. Baina, piskanaka-piskanaka laneko metodoak ere asko ari dira garatzen. **Aditu** batzuk **frogatu** dute txinpantzeen eta gorilen hizkuntz gaitasuna. Horren **lekuko** dugu J. Premack amerikarrak 1971an egin zuen lana. Zenbait teknikaz





# gero hizkuntza ote?

baliatuz, lortu zuen zazpi urteko Sara txinpantzeari hizkuntza jakin eta berezi bat irakastea. Sara gai izan zen galderari erantzuteko eta baldintzazko esaldiak ulertzerara heldu zen.

Beraz, egindako ikerketek frogatu dute txinpantzeak eta gorilak gauza direla beren inguruko mundua buruz **irudikatze**ko eta irudikapen horiek "hizkera-mota" batez adierazteko. Oztoporik handiena hauxe dute, beren aparatua fonikoa oso murrizta eta mugatua dela. Horregatik, ikertzaileek horretaz ohartu zirenean, **gor-mutuen** zeinuen antzeko hizkerarekin hasi ziren lanean, eta emaitza onak lortu zituzten. Adibidez, Allen eta Beatrice Gardner amerikarrek hazi zuten "Washoe" txinpantzea gai izan zen ehun hitz baino gehiago "esateko".

**ADITU.**- Jakituna. *Experto/a.*

**BELE.**- Cuervo.

**BURMUIN.**- Garuna. *Cerebro.*

**EME.**- Hembra.

**ERLAUNTZA.**- Colmena.

**FROGATU.**- Egiatzatu. *Demostrar.*

**GARATU.**- Desarrollar.

**GIZAKI.**- Ser humano.

**GOI-ORNODUN.**- Vertebrado superior.

**GOR-MUTU.**- Sordomudo.

**IGORRI.**- Bidali.

**IRUDIKATU.**- Simbolizar.

**IZURDE.**- Delfin.

**JARRERA.**- Actitud.

**LEKUKO.**- Testigo.

**MOZOLO.**- Mochuelo.

**NABAR.**- Pardo.

**PAUMA.**- Pavo real.

**SORTZETIKO.**- Innato.

**TXANTXANGORRI.**- Petirrojo.

**UKITUZKO.**- Táctil.



# Sagarretik sagardora

**N**ola egiten da sagardoa? Hori azaltzeko, sagarra **bildu** ondoren ze urrats eman behar diren azaltzen dituzte askok. Baina sagarrak **sagarrondoetan** daude, eta sagarrondoak **sagastietan**. Eta esaterako, **inausketa** gaizki egiten bada, horrek sagarrari eragingo dio, eta beraz, sagardoari berari. Baina ez gara hain atzetik hasiko sagardoa *espilikatzen*. Sagar-biltzetik hasiko gara.

Sagar-biltzeak bere epeak ditu, eta xuxen bete beharrekoak. Badira **goiz sagarrak**, baita abenduan biltzen direnak ere. Sagarra zuhaitzean heldu eta erortzeko **zorrian** dagoenean, orduantxe bildu behar da, **alde** handia baitago sagar heldu batetik sagar heldugabe batera, handia. Ondo heldutako sagarrak azukre doblea du berdeak baino.

Jose Uria Irastorzak "Sagardoa" izeneko liburu ederrean bederatzia sagar-mota bereizten ditu zaporerai dagokionez: gozoak, **gaziak**, **gezak**, **garratzak**, gazi-gezak, gazi-garratzak, **gozo-garratzak**, gazi-gozoak eta geza-garratzak. Sagarrak sagar, sagardoak orekatua izan behar du, ez oso gazi, ez oso garratz, ez oso gozo; Euskal Herriaz ari gara hizketan, ez atzerrian atsegin dituzten sagardoei buruz, txanpan itxurakoei buruz, kasu. Harira itzuliz, sagardogile bakoitzak bere ohiturak izango ditu sagarmotak aukeratzerakoan, eta **dastatu** besterik ez dago, **kupeletik** kupelera dauden aldeak nabaritzeko. Bataz besteko bat egiteko hauxe esan daiteke: erdia sagar garratza izango da, beste %30a gazia eta beste %20a geza.

## Dolareak eta kupelak

Sagarra dolarean jotzen da, 24 ordu egonean utzi, eta estutu egiten da, prentsatu. 24 ordu esan dugu, baina hori ere gutxi gorabeherakoa da. Izan ere, estutu aurreko pats busti hori egonean dagoenean,

**beratzen**, beroa edo hego-haizea badabil, bost-hamar ordu egonda ere nahikoa da, baina hotz egiten badu, orduan bai, hamabost-hogeita lau ordu beharko dira beratzeko, estutu baino lehen. Estutze hori zortzi-hamar aldiz burutzen da **muztioa** atera arte. Ez da gehiegi estutzea komeni, ze sagar-hazi mingotsak apurtzen badira, zapore hori hartuko du muztioak.

Muztioa kupeletan sartu aurretik, ondo garbitu behar dira. Besteak beste, horregatik ari dira aluminiozko kupelak ugaritzen egurrezkoen kaltetan, **aiseago** garbitzen direlako, eta beraz, aluminiozkoak erabilita **berdinago** ateratzen delako sagardoa kupeletik kupelera. Baina egurrezko kupelak badu alderdi onen bat edo beste, adibidez, ondo uzten diola sagardoari arnas hartzen. Kupelaren barruan muztioa **hartzitu** egiten da, eta epe horretan eguraldia epela bada, muztioa gehiegi berotzen da egurrezko kupeletan. Hartzitutako edota irakindako muztioa da sagardoa. Eta bi irakinaldi izaten dira, bata motza eta bestea luzea. Irakinaldi horietan muztioak zikina soltatzen du. Zikinaren zati bat kupelaren goialdean, "txapela" izeneko geruza apartsu bat da, geldituko da. Eta beste zati bat behean, eta tartean sagardoa! "Txapela" sagar-hazi, sagar-azal, **txurten**... eta antzeko gaiek osatzen dute, sagardoa bera baino **gai arinagoek** alegia. Muztioak ondo irakingo badu, bai goiko zikina bai behekoa bakean utzi behar dira, geldi, kupela mugitu gabe. Bigarren irakinaldia bukatzen den unean, egun pare bateko kontua da, kupela itxi egin behar da. Berandutuz gero, sagardoa mindu egin liteke, eta behar baino lehenago ixten bada, sagardoak berri-antza har dezake. Bada *densimetroa* izeneko tresna bat, irakinaldia noiz bukatzen ari den jakiteko balio duena. Baina normalean kupela noiz itxi, txotxetik edanda erabakiko du sagardogileak.



## Kupelak itxi eta gero, zer?

Kupelak itxi eta bi hilabetera, hortxe-hortxe **parrokianoek** txotxetik edateko moduan dago sagardoa, edo botillatan sartzeko moduan.

Garai batean parrokiano horiek tabernariak izaten ziren, edo gastronomi elkarteko kideak...

Txotxetik edanda ikusten zuten urte hartako sagardoa nolakoa zen, eta zein kupelatik bete botilak.

Beraz, dastaketa-proba zen txotxetik edate hori...

Baina edariak jatekoa eskatzen du: txuleta, makailu tortila, makailu frijitua, intxaurrek, gazta, membrilloa...

Bai jan, bai edan, zutik egiteko ohitura zuten. Baita gaur egun ere.

Baina **aspaldion** bezeroak ugaltu egin dira, **erruz-erruz**, eta ez dira soilik tabernari, sagardogileen lagun min, gastronomi elkarteko kide... Eta badira eserita jaten dutenak ere. Hots, garesti izan arren, era guztietako jendea joaten da sagardotegira, nahiz harritura entzun dugun sagardotegi bakar jakin batean, hemen ere *pedegree* kontuak hala?, ez direla bezero ezezagunez fido, eta tokirik ez dagoela esaten dietela mahaia hartzeko telefonoz deitzen dutenean.

Dena den, txotxeko sagardoa baino askoz gehiago edaten da botilakoa. Botilak betetzeko tresnak daude, eta botilako sagardoa urte guttian edan liteke. Eta beti ere, nahiz txotxekoa nahiz botilakoa edan, neurritz.

Sagardoaren berri gehiago:

Uria Irastorza, Jose; "Sagardoa". Sagardoaren gidaliburua 93/94, DV.

<http://www.argia.com/sagardoa>

<http://www.sagardoa.com>

Argia, 1.700. zenb.

HABE Aldizkaria 163. zenb.



*Sagar-biltzeak bere epeak ditu, xuxen bete beharrekoak.*



*Sagarra dolaren jotzen da...*

*... eta prentsatu.*

*Muztioa.*



## NON AFALDUKO DUGU?

Pentsa ezazu zure euskaltegiko edo koadrilako lagunekin afari bat antolatzea erabaki duzula. Aukeratu duzuen sagardotegia, berriz, Hernaniko Rufino. Zer eraman beharko zenukete?

Dirua, afaria ordaintzeko

Haragia, han ez baitute izaten

Ogia, han ez baitute izaten

**AISE.-** Erraz.

**ALDE.-** Diferentzia.

**ASPALDION.-** Aspaldi honetan.

**BERATU.-** Macerar.

**BERDIN.-** Homogéneo/a.

**BILDU.-** Jaso. Recolectar.

**DASTATU.-** Probatu.

**DOLARE.-** Lagar.

**ERRUZ-ERRUZ.-** Izugarri. Mogollón.

**GAI ARINAGO.-** Pisu gutxiagoko gaiak. Elementos más livianos.

**GARRATZ.-** Amargo/a.

**GAZI.-** Acido/a.

**GEZA.-** Dulce.

**GOIZ SAGAR.-** Manzana tempranera.

**GOZO.-** Dulzón/a.

**HARTZITU.-** Fermentar.

**INAUSKETA.-** Adarrak moztu. Poda.

**KUPEL.-** Barrika.

**MUZTIO.-** Mostoa.

**PARROKIANO.-** Cliente.

**SAGARRONDO.-** Manzano.

Zenbait tokitan ez dira sagarra eta sagarrondoa bereizten.

Guztia da sagar, bai arbola, bai fruta.

**SAGASTI.-** Manzanal.

**TXURTEN.-** Rabo de la manzana.

**ZORIAN.-** Puntuán. A punto de.



Orain 25 urte atera zuen Aita Zavalak *"Ustu ezin zan ganbara"* Txirritaren hainbat bertso eta gertaerekin. Txirritari sagardotegi batean gertatutakoa aldatuko dugu hona. Baina, guk euskara batuan jarriko dugu, ez gipuzkeraz.



**AGURO.-** Azkar.

**ALDATU.-** Ekarri. *Transcribir.*

**BEHIN BATEZ.-** Behin batean. *En cierta ocasión.*

**BILATU.-** Aurkitu. *Encontrar.* Zenbait tokitan ez dituzte bilatu (*buscar*) eta aurkitu (*encontrar*) kontrajartzen, baizik bila ibili (*buscar*) eta bilatu (*encontrar*).

**ERANTZI.-** Arropa kendu. *Desvestirse.*

**GOIZALDERA ARTE.-** Goiz partera arte. *Hasta el amanecer.*

**OSTERA.-** Berriro. *De nuevo.*

**TIPOA ZEN HURA.-** Aparejo ederra zen hura! *Menudo era!*

## Galtzerdiak

**H**ernaniko Pablo Zubiarra in bertsolariak honela kontatu digu:

"Olegario Hernanikoa ere bertsolari zaharra, eta Txirrita eta biak beti parrandan.

**Behin batez,** ilobarekin abixua bialdu omen zion; Getarian San Antonak zirela eta bertsoetara joan behar zutela eta etortzeko Hernanira. Olegariok Txirritari abixu hori bialdu. Hala, etorri omen zen; afaldu ere egin omen dute eta Txirrita sagardotegira. Hernanin dena sagardotegia zen ba orduan. Sagardotegian bertsoetan batean eta bestean aritu da **goizaldera arte.**

Galtzerdi puskatuekin joana hura eta goizean hark berriak jantzi nahi.

Halako batean, zaldia eta karroa preparatua zeudela eta Olegariok Txirritari:

- Jaiki hadi! Jaiki hadi!

Eta Txirritak:

- Bai, berehala!

Baina ez jaikitzen hura ohetik; ez jaikitzen ohetik eta alaba bialdu omen zion:

- Esaion jaikitzeko **aguro**, kotxea preparatua dagoela-eta!

Orduan kotxearekin ibiltzen baitziren.

Alaba joan da, esan ere bai, baina Txirrita ez jaikitzen. Olegariok **ostera** bialdu zuen alaba:

- Jaikitzeko azkar esaion, aspertu dela kotxeroa-eta!

Joan da alaba eta Txirritak:

- Esaiozu aitari ezin dudala! Bart arratsean hemen aldatu nintzela eta ezin ditudala galtzerdiak bilatu! Bat bilatzen dudala, eta bestea ezin dudala bilatu!

Igo omen da Olegario eta:

- Zer pasatzen zaik?

- Nik ez zekiat ba! Hemen aldatu nituen bart arratsean, eta inon ez diat **bilatzen** orain galtzerdia! Eta hanka batean galtzerdia eta bestea hankutsik ezin joango nauk ba!

Orduan Olegariok alabari:

- Joan hadi dendara! Holako dendatik ekar itzan aguro galtzerdiak honentzako!

Joan eta ekarri omen zizkion, eta ez zeukan hanka hartan jantzi omen zuen galtzerdia. Hura propio noski, **tipoa zen hura!**

Gero beste hankan hasi da **erazten** lehengo zaharra eta:

- Hara! Hau ere nik egin behar nian! Nola bilatuko nian ba, biak hanka batean jantzita zeuzkaat-eta!

Eta, berriak jantzita, ederki hura Getariko San Antonetara!

## Iparramerikarrak sagardotegian

**A**tzerrira, hango berri handirik jakin gabe joaten garenean, **hanka sart**-**Az**eko arriskua dugu. Hori egin ei zuten iparramerikar batzuk, neska-mutil gazte koadrila batek, hemengo sagardotegi batean. Sartu dira eta hainbeste jende zutik ikusita, lehen galdera nagusiari. Ea self-service bat zen. Handik piskatera, **non hasten den** nesketako bat tortilari makailua kendu nahian. **Hurrena** ere aurpegian: basoa goraino bete eta hura edateko ea "pajitak" bazituzten... No comment.



**HANKA SARTU.-** Huts egin.- *Meter la pata.*

**NON HASTEN DEN.-** Ez da ba hasten! *He aquí que empieza a, va y empieza a...*

**HURRENA.-** Hurrengoa. *Lo siguiente.*

# Ergero

## Eguberrien biharamunak urtarrila du izena

Urte berriaren lehen hilabetea benetan gogorra suertatu ohi da, urte zaharra agurtzen gastatutako indarrak eta diruak, urtarrilak **majo** kobratzen dizkigulako. Behin Erregeak pasatu ondoren, kontuak egiteko garaia iristen da eta orduan hasten dira **komerriak**, Eguberrietako **gehiekeriak** urtarrilean sofritzen ditugulako, poltsikoan zein osasunean. A zer aldapa gogorra Eguberrietako **biharamuna!**

Eta esandako guztiak esanda ere, sarritan alferrik izaten denez, hona hemen ezagutzea komeni diren zenbait datu:

Haurrei opariak erosteko egiten den gastua, batez beste, 20.000 pezetakoa izaten da, nahiz eta honelako datuak etxe batetik bestera asko-asko aldatzen diren, norberaren ekonomia ahalmenaren eta haurren kopuruaren arabera. Baina Kontsumitzaileen Elkarteak kaleratu dituen kalkuluei erreparatzen baldin badiegu, urtean zehar 27.000 pezeta inguru gastatzen dira erregaluetan ume bakoitzeko eta horietatik %75 inguru, Olentzero edota Erregetako oparietan joaten dira.

Eguberrien atarian **jasaten** dugun kontsumitzearen aldeko kanpaina ikaragarria izaten da. Dendak, kaleak, merkatuak... guzti-guztiak dotore asko apaintzen dituzte eta produkturik goxoenak, ederrenak eta **erakargarrienak** plazaratzen dira, helburua beti berbera delarik: **bezeroa xaxatu** eta erostera bultzatu.

Mila modutara erostera gonbidatzen gaituzte, errukirik gabe. Eta, gero, urtarrilean konturatzen gara kontuak egiterako orduan, berriro

ere pentsatutakoa baino dexente gehiago gastatu dugula. Izan ere, hain dira tentagarriak Eguberriak!

Hala ere, "Eros ezazu!" dei horrek guregan, helduonagan, **eragina** baldin badu, atera kontuak haurrengan sortzen duen gogoaz. Gaur egungo eskaintza, gainera, oso ezberdina eta **anitza** da: betiko baloi, puzzle edota panpinetatik hasi eta teknologia berriekekin lotuta dauden joku eta aparatu **zein baino zein** erakargarriagoak arte. Eta txikiek ez diote diruari edo gastuari erreparatzen, eskaintzen dietenari baizik.

Joan den urtean, jostailuaren sektoreak ia 100.000 milioi pezeta irabazi zituen *Gabonetako kanpaina* izenarekin eza gutzen den garai honetan, azaroan hasi eta Erregetan amaitzen den honetan, alegia. Haurrentzat **propio** eginiko mini-ordenadoreak eta "txip"-arekin osatutako panpina elektronikoak izan ziren jostailurik arrakastatsuenak.

Haurren erregaluetan gastatzen den diruari helduentzako oparietan gastatzen dena gehitzen baldin badiogu, Eguberriak dirua barra-barra botatzen den amaierarik gabeko zulo handi bat **baino** ez dira.

Dena den, jostailuen sektoreak ia 100.000 milioi irabazi baldin bazituen, komunikabideek eta, bereziki, telebistek Eguberriari ateratzen dieten **etekina** ere benetan handia da. Urte Berriko lehen minutuko lehen **iragarkiarentatik** milioiak ordaitzen dira eta, iaz, milurte berriko lehen iragarkia zela eta kontuarekin, kostuak **bikoiztu** eta hirukoiztu ere egin ziren.



# Gaurgero

## Eguberrien biharamunak urtarrila du izena

Opariez gain, loteria eta antzekoetan ere diru asko joaten da urteko sasoi honetan. Euskaldun bakoitzeko 3.500 pezeta gastatzen dira, beraz, zortearen truke sekula erreku-peratuko ez ditugun milaka milioi gastatzen ditugu.

Honetaz guztiaz gain, jakien kostua bera urteko sasoi honetan **biderkatu** egiten da. Aurten gainera, behi eroen **gaitz** madarikatuak izango du eraginik. Askok eta askok haragia alde batera utzi eta arrainaren aldeko apustua egingo dute eta, berez arraina garestia baldin bada, aurtengoa beldurgarria izan daiteke haren prezioa. Angula kiloaren prezioak ez ezik, bixiguaren edo legatzaren prezioak ere aho zabalik utziko gaitu denok, egon ziur!

Honetaz gain, ardo gorri nafarrak ere ez dira makalak. Eta, zer esanik ez, afal ondorengo likore eta gainerantzekoak. Eta goxoak, mazapanak, polboroiak, turroiak –nahiz eta bestelakorik iruditu, gure etxeetako %25etan turroiak eta antzekoak ez diren erosi ere egiten–.

Beraz, koska ala kosta, poltsikoari heldu eta burutsu jokatu, bestela urteroko burukomina sufrituko baituzue urtarrilean. Eta, asko pentsatu arren, diruak eskuetatik ihes egiten baldin badizue, sikiera disfrutatu eta gozatu. Eguberri ondoren zoriontsuak pasa!




**ANITZ.**- Variado, plural.  
**BAINO.**- Baizik, besterik. *Más que.*  
**BEZERO.**- Cliente.  
**BIDERKATU.**- Multiplicar.  
**BIHARAMUN.**- Hurrengo eguna. *Día siguiente.*  
**BIKOIZTU.**- Duplicar.  
**ERAGIN.**- Influencia.  
**ERAKARGARRI.**- Atrayente.  
**ETEKIN.**- Mozkina, probetxua.

**GAITZ.**- Eritasuna. *Enfermedad.*  
**GEHIEKERIA.**- Exceso.  
**IRAGARKI.**- Anuncio Publicitario.  
**JASAN.**- Nozitu. *Soportar.*  
**KOMERIA.**- Arazoa.  
**MAJO.**- Ederki, asko.  
**PROPIO.**- Berariaz. *Expresamente.*  
**XAXATU.**- Azuzar.  
**ZEIN BAINO ZEIN.**- Cada cual más...



# INTERESGUNEA



—> Lehen migrazioa

—> Klima-aldaketak eragindako sakabanaketa

—> Nekazaritzak eragindako sakabanaketa

—> Giza taldeen mendea

## Hizkuntzak, edonorako giltza

**M**unduko hizkuntzen familiak herrialdeen lau garapen-bideren ondorio dira.

Lehena Afrikatik hegoaldera Homo sapiensak egindako ibilbideari zor zaio. Haren aztarnak euskarak, kaukasierak, australierak, amerindiarrak eta indopazifikerak gorde ditu. Nekazaritzaren sorrera eta giza taldeen berrantolaketak eragindakoa izan zen bigarren garapen-urratsa. Horrela jaio ziren ama-hizkuntza zahar hauek: sino-tibetarrera, austronesiera eta afroasiarrera. Klima-aldaketaren ondorioz eratorritako hizkuntzak, ordea, hauetxek dira, besteak beste: uralo-yukaguirarrera, chucuto-chamchatcaera, esquimo-auleutianera eta na-denera. Azken garapen-bidea giza talde organizatuen sorrerak eragindakoa dugu. Talde batek bestea mende hartzen zuenean, bere kultura eta ondorioz bere hizkuntza inposatzen baitzuen. Horrela, beraz, hizkuntz familia berriak sortu ziren. Esate baterako, indoeuroparrera.



## HIZKUNTZEKIN ATEAK ZABALIK

Europako hizkuntz aniztasuna eta hizkuntzen ikasketa bultzatu nahian, Europako Batasunak eta Europako Kontseiluak Hizkuntzen Urte Europarra antolatu dute. Hori dela eta, Hizkuntzen Urte Europarraren ekintzen helburu nagusia hiritarrei hizkuntzei eta horiek ikasteari buruzko argibideak ematea da.

Egitasmo hau ondorengo irizpideei jarraiki burutuko dute: **1.-** Hizkuntzak jakiteak **aukerak ematen** ditu. **2.-** Beste norbaiten hizkuntza ulertzen baldin bada, hobeto estima daitezke haren kultura eta pertsona bera.

**Edonork** ikas dezake hizkuntza berri bat ulertzen edo mintzatzen. Inoiz ez da goizegi edo beranduegi. Hizkuntz ikasketa **jardunbide iraunkorra** da.

Urte Europarrak Europan mintzatzen diren **hizkuntza guztiak** hartzen ditu **bere baitan**. Hizkuntza bakoitza Europaren herentziaren eta etorkizunaren funtsezko zati bat da.

[www.eurolang2001.org](http://www.eurolang2001.org)

## NORK ETA NOLA HAR DEZAKE PARTE?

Guztiak har dezakete parte Hizkuntzen Urte Europarrean

Parte hartzeko erarik onena **atzerriko** hizkuntza berri bat ikasten hastea da edo oraingo **ezagupenak** hobetzea. Bestalde, **esku har** ezazu zeure herrian edo herrialdean burutuko diren **agerraldi** eta jardueretan. Bil zaitez beste lagunekin zeure herrian edo beste herrialderen batean, zeuen jarduerak antolatzeko. Eta har ezazu parte Internet bidezko jolas, eztabaida eta **elkarreragineko** ariketa linguistikoetan. Ahaztu gabe: esku hartu antolatuko diren lehiaketetan.

## GUZTIOK GARA HIZKUNTZAREN BAT IKASTEKO GAI

Edonork da, gazte edo zahar, hizkuntzaren bat noiznahi ikasteko gauza. Beste hizkuntza bat ikastea **erronka** da beti, baina, lan horri egoki heltzen bazaio, atsegin izango da eta pozbide. Batzorde Europarrak eta Europako Kontseiluak hizkuntzak ikasten ari direnentzako Gida bat argitaratuko dute aurten. Aholku baliozko asko eskainiko du metodoak aukeratzeko, eta bakoitzari ongien dagozkion ikastaroei ahalik eta probetxurik hoberena ateratzeko, hizkuntza bat egokien eta azkarren ikas dezan. Bitartean, hona hemen kontuan hartu beharreko oinarriko zenbait alderdi:

## AHOLKUAK

Hizkuntza bat ikastea, batez ere **jakin-mina** eta komunikatzeko gogoia behar dira.

Lehendik hizkuntza atzeritarrik ikasi ez baduzu, zaude lasai. Edonork egin dezake hori. Ikasketa-saioren batean aritu baldin bazara, zenbait teknikaren jabe zara eta berriro aplikatzeko gai.

Azkar ikastea zure esku dago, baina errazago ikasiko duzu egunero edo astero denbora jakin bat horretan ematen baduzu. Asteaz bi-lau orduz arituz gero, asko aurreratuko duzu. Hala ere, pazientzia garrantzizkoa da. Ikas daitzeko arin zenbait gauza, baina hizkuntza bat ez da aste batzuetan ikasten. Bestetik, zeure **aurrerapenak** kontrolatu: Gaur egun ikastaro askok ariketak izaten dituzte, ikasitakoa ebaluatzen laguntzeko eta landu behar diren gauzak azpimarratzeko.

Zure inguruko baliabideak ez alferrik galdu. Modu asko daude ikastaroan ikasten dena finkatzeko: egunkariak irakurtzea, atzerriko irratiren bat entzutea edo filmak jatorrizko hizkuntzan ikustea. Ez beldurrik izan hizkuntza berria erabiltzeko. Izango dira, seguraski, zure inguruan hizkuntza horretan mintzatzen direnak, edo postako harremanak zurekin izan ditzaketanak, edo atzerriko norbaitekin posta elektronikoz **trukaketak** egiteko aukera emango dizuna.

Saia zaitez bisitaren bat egiten, egun gutxi batzuetarako bada ere, zu ikasten ari zaren hizkuntza mintzatzen den herrialderen batera. Eta hori egiten duzunean, aprobetxatu hizkuntza erabiltzeko edozein aukera.

Gomendiorik garrantzitsuena: bakoitzak bere erara ikasten baitu, egizazu aproba metodo desberdinekin eta ikusi eraginkorrena zein zaizun, eta aurrera.

Beste aholku batzuk ere aurkituko dituzu ondorengo helbideetan:

<http://europa.eu.int/comm/education/languages/lang/teaching.html>

<http://culture.coe.int/ecml>

<http://culture.coe.int/lang>



## HIZKUNTZAK BATASUN EUROPARREAN

### *Zein hizkuntza mintzatzen dira?*

Hizkuntza	Batasun Europarrean ama-hizkuntza bezala erabiltzen duen populazioaren portzentajea	Batasun Europarrean bigarren hizkuntza edo hizkuntza atzerritar bezala erabiltzen duen populazioaren portzentajea	Hizkuntza horretako hiztunen portzentaje osoa
ALEMANA	%24	%8	%32
FRANTSESA	%16	%10	%26
INGELES	%16	%31	%47
ITALIERA	%16	%2	%18
NEDERLANDERA	%6	%1	%7
GREKOA	%3	%0	%3
PORTUGESA	%3	%0	%3
SUEDIERA	%2	%1	%3
DANIERA	%2	%0	%2
FINLANDIERA	%1	%0	%1
BESTE	%2	%4	%6

**AGERRALDI.**- Manifestación.

**ANIZTASUN.**- Pluralidad, variedad.

**ATZERRI.**- Extranjero.

**AUKERAK EMAN.**- Dar oportunidades.

**AURRERAPEN.**- Progreso.

**BERE BAITAN.**- Bere barruan.

**EDONOR.**- Cualquiera.

**ELKARRERAGIN.**- Interacción.

**ERAGINKOR.**- Eficaz.

**ERRONKA.**- Desafío, reto.

**ESKUALDE.**- Región.

**ESKU HARTU.**- Parte hartu. Participar.

**EZAGUPEN.**- Ezagutza. Conocimiento.

**HIZKUNTZA GUTXITUA.**- Lengua minoritaria.

**HIZKUNTZA GUZTIAK.**- Todos los idiomas.

**IRAUNKOR.**- Permanente.

**JAKIN-MIN.**- Jakingura. Curiosidad.

**JARDUNBIDE.**- Proceso.

**JATORRIZKO.**- Original.

**ONDARE.**- Patrimonio.

**SUSTATU.**- Estimular.

**TRUKAKETA.**- Intercambio.

## ESKUALDEETAKO HIZKUNTZAK ETA HIZKUNTZ GUTXITUAK

Europako Kontseiluak oso garrantzirik jotzen du Europar **aniztasun** linguistikoa **sustatzea** eta asko laguntzen du baliabideak lantzen, 30 hizkuntza nazional eta eskualdekoen ikasketa bultzatzeko. Bestalde, bere egin du *hizkuntza gutxituen edo eskualdekoen Karta*, hizkuntza horiek babesteko eta promozionatzeko, gure ondare linguistikoa eta kulturalaren bizirik dagoen elementu garrantzirikoa baita.

Karta-ren Internet-gunea:

<http://conventions.coe.int/Treaty/EN/Treaties/HTML/148.htm>

<http://europa.eu.int/comm/education/langmin.html>



Testua bitan irakur ezazu. Lehenengo saioan gainirakurketa baino ez egin. Bigarrenean, berriz, hitz-gakoak azpimarratzen saia zaitez.



# Emakumeak gizonak baino

**A**ski **uste** arrunta da emakumeek aiseago ikasten adituztela hizkuntzak gizonak baino, dela **ama-hizkuntza** dela jatorrizkoaz gaineko beste edozein hizkuntza. Baina zenbateraino da egia uste hori? Azterlan ugari egin dira ea **alderik** dagoen jakiteko. Hala ere, **emaitzek** ez dute **aho bateko** ondorioz ekarri. Ama-hizkuntzari dagokionez, zenbait ikertzaileen iritziz, lotura dago hizkuntzaren **garapenaren** eta adinaren artean. Halatan, lehenengo aroan, jaio eta hiru urtera bitartekoan, neskatoen hizkuntz garapena **bizkorragoa** da mutikoena baino. Bigarrenean, berriz, hirutik hamaikara bitartekoan, ez dago alderik. Eta, hirugarrenean, hamaika urtetik aurrera, neskek **hartzen diete gaina** berriro mutilei.

Duela hiru urte AEBetako 1.400 ikastetxeren ebaluazio-orriak aztertu zituzten *Educational Testing Service*-ko **adituek**. Milioika ikasleri zegozkien ebaluazio haiek. Ondorioa izan zen neskak, oro har, hizkuntz gaietan **gailentzen** zitzaizkiela mutilei. Eta mutilek neskei matematikan, objektuak espazioan ikusteko ahalmenean,

eta, mekanikan eta elektronikan. Bestalde, datu horiek aurreko azterlanekin alderatuta, ikusi zuten neskek zientzietako ikasgaietan zuten hutsunea urtez urte gero eta txikiagoa zela, hau da, gero eta hurbilago zeudela mutilengandik. Baina mutilak ez ziren neskekiko zuten aldea **murritzten** ari.

Beste aztertzaile batzuek diotenez, soil-soilik ama-hizkuntzaren erabilerari dagozkiolarik, ezin esan daiteke gizonetzkoen eta emakumezkoen artean alderik dagoenik. Eta antzeko zerbait gertatzen da jatorrizkoaz gaineko beste hizkuntzaren bat ikasten denean, azterlanen emaitzak kontrajarriak izan baitira askotan.

Bi ikerketa-norabide **nagusitu** dira pixkanaka-pixkanaka. Lehenengoan, gizakion alderdi neurofisiologikoa dute adituek aztergai. Bigarrenean, berriz, harreman historiko, sozial eta kulturalak. Eta esan



## hizkuntz ikasle hobeak?

behar da bigarrena gero eta sendoagoa dela. Lehenengoaren arabera, **balizko** aldean **zergatia** emakume eta gizonezkoen **burmuinak** ezberdinak izateari zor zaio. Baina gauzak horrela direla esateko, argi eta garbi **egiaztatu** behar dute lehendabizi gizonen eta emakumeen burmuinen **eraketa** ezberdina dela. Gero, hizkuntza dela eta, aldeak badaudela gizonen eta emakumeen artean. Eta azkenik, alde horiek burmuinean dauden aldeen zordun direla. **Ez da lan makala.**


Bigarren ikerketa-norabidearen arabera, errazagoak dira gauzak. **Agi denez**, neskatoak mutikoak baino sosegu handiagoz (joko-jolas lasaiagoak...) aritzen dira. Horrexegatik, beren zaintzaileek (gurasoek, irakasleek, tutoreek...) modu ezberdinean tratatzen dituzte. Mutikoekin, dirudienez, gehiagotan erabiltzen da arreta **erakartzeko** hizkera. Ondorioz, haurren portaera-erantzuna ere ezberdina izaten da. **Ildo beretik**, hainbat azterlanetan frogatu da irakasleek ere ez dietela neskei eta

mutilei berdin hitz egiten hizkuntz eskoletan. Eta, aski arrunta da kultura askotan emakumezkoen **berritsu** direla eta garrantzirik gabeko **txaldankeriez** kontu kontari ari direla **leporatzea**. Uste horri jarraikiz, gizonezkoek gutxiagotan baina "pulamendu" handiagoz hitz egiten omen dute.

**Eragile** historiko, sozial eta kulturalen alorra aztertzen ari diren adituek ez dute ukatzen, hasieran, haurra jaiotakoan, dauden sexu-aldeak direla hizkuntz aldean lehen **zuritzaile**. Baina, haien ustez, jaiotzetik egon daitekeen alde **xume** hori, gizakia **hazi ahalean**, oso handi **bihurtzen ahal da** maila sozialeko eragileei esker. Eta ez dute gustuko sexu-aldeei buruz hitz egitea "genero-aldeei" buruz baizik. Bete-betean jasotzen baitu genero hitzak maila sozialeko gorabehera guztiak. Gauzak ikuspegi horretatik aztertuta, errazago ulertzen da zergatik hizkuntz ikasgeletan neska gehiago egoten diren mutilak baino, **esaterako**.



- ADITU.**- Jakituna. *Experto/a.*
- AGI DENEZ.**- Dirudienez. *Al parecer.*
- AHO BATEKO.**- *Unánime.*
- ALDE.**- *Diferencia.*
- ALDERATU.**- Erkatu. *Comparar.*
- AMA-HIZKUNTZA.**- *Lengua materna.*
- BALIZKO.**- *Posible.*
- BERRITSU.**- Hitzuna. *Locuaz.*
- BIHURTZEN AHAL DA.**- Bihur daiteke. *Se puede convertir.*
- BIZKOR.**- Arina. *Rápido, ágil.*
- BURMUIN.**- Garuna. *Cerebro.*
- EGIAZTATU.**- Frogatu. *Demostrar.*
- EMAITZA.**- *Resultado.*
- ERAGILE.**- *Factor.*
- ERAKARRI.**- *Atraer.*
- ERAKETA.**- *Organización, estructuración.*
- ESATERAKO.**- Adibidez. *Por ejemplo.*
- EZ DA LAN MAKALA.**- Ez da nolanhiko lana, ez da lan txikia.
- GAIENDU.**- *Sobresalir, destacar.*
- GAINA HARTU.**- Gainditu. *Superar.*
- GARAPEN.**- *Desarrollo.*
- HAZI AHALEAN.**- *A medida que crece.*
- ILDO BERA.**- *Misma línea.*
- LEPORATU.**- Egotzi. *Imputar, atribuir.*
- MURRIZTU.**- Gutxitu.
- NAGUSITU.**- *Prevalecer.*
- TXALDANKERIA.**- *Insustancialidad.*
- USTE.**- Aburua, iritzia.
- XUME.**- Apala, txikia.
- ZERGATIA.**- Arrazoia.
- ZURITZAILE.**- *Justificante.*





## Hizkuntza hitzak baino sakonagoko zerbait da.



### ALDAKETARAKO BIDEAK

A skotan esan izan da euskara Aez dela sexista, genero gramatikalik ez duelako, sexismoa horretan oinarrituko balitz bezala. Aurrerago esandakoa onartzen badugu, argi dago hizkuntza guztien erabilpena dela sexista, neurri batean edo bestean,

gizartean dagoen diskriminazioa **islatzen** dutelako. Baina ez hori bakarrik, errealitatea islatzeaz gain, errealitatea **eraikitzen** laguntzen du; beraz, oinarritzea da gure hizkera eta idazkera zaintzea gizon eta emakumeen eguneroko lana, baloreak eta abar ager daitezen.

Eta horretarako, aholku zenbait hartu beharko da. Alde batetik, emakumeak agertarazteko bideak urratu eta gizonentzako erreferentzia **gunetzat** ez hartzea; bestetik, **ezaugarri** berdinak ezartzea gizon eta emakumeei. Azkenik eta euskal egiturari dagokionez, zenbait ohar:

- "gizon", "gizaseme" eta "gizonezko" hitzak gizonezkoentzako bakarrik erabili; "gizaki", aldiz, gizonak zein emakumeak izendatzeko edo izen generiko gisa.  
*Oharra: giza- errotik sortutakoak, bestalde, bietarako erabil daitezke.*
- Hitz elkartuetan, Emakumeren bat tartean badago, euskarak **berezko** duen **joerari** eutsi behar diogu: senar-emazteak; aiton-amonak; osaba-izebak...
- Hitz elkartuetan, bigarren osagaia "gizon" denean "-ari" atzizkiak balia gaitzke. Adibidez "legelari", legegizonen ordez, edo.
- Batzuetan, gure **mezua** nori **helarazi** nahi diogun oso ondo jakin ez eta, ohituraren ohituraz, edo gaztelaniaren **eraginez**, jauna hitza aukeratzen dugu, kargua emakume batek ere bete dezakeenean. Gogoan izan euskaraz jaun-andre bokatiboa badugula.
- "-sa" atzizkia daramaten hitz gehienak berriak dira, eta asko eta asko **maileguak**. Atzizki hori, bestalde, zubereaz dago bizirik (artzaintza, laborarisa, jainkosa, alar-guntsa, ...). Mendebalean kargu jakin bat duenaren andrea aipatzeko erabili izan da (**harginesa**, alkatesa).

Euskara baturako mugatu egin beharko litzateke atzizki honen erabilpena. Zenbait kasutan, izen propioak

*Sexismoa ez dago hizkuntzan, **hiztunen buruan** baizik; horregatik, ez da egokia hizkuntza sexistaz aritzea, baizik eta erabilpen sexistaz.*



*Androzentrismoa mundua begiratzeko modu bat da; mundua **gizonezkoen** begietatik bakarrik ikusteko modu bat.*

emango digu sexuaren berri; beste batzuetan, testuinguruak argibiderik ematen ez digulako edo, mugatu beharrean izango gara, eta, horretarako, izen arruntetara jo: emakume alarguna, neska dantzaria...

- Erabiltzekotan**, kontuan eduki hitanoak sexua markatzen duela; beraz, kontu handiz ibili behar da inor ez baztertze. Hortaz, inoiz ez erabili talde bati zuzendutako mezuan, talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu.

*Gomendioek ez dute **bide** bakarra **urratzen** bide ugari baitago errealitatea beste era batera izendatzeko, **hizkuntzak** eskatzen duen **zuzentasuna**, **edertasuna** eta **ekonomia** galdu gabe.*

*OHARRA: Nahiz eta, orohar itzulpenetako kontua izan, komeni da ohareraztea euskarak berez hitz elkartuen bidea duela zenbait maskulino plural adierazteko. Horrela, "Errege-erregina katolikoak" edota "alkate-alkatesak" esan beharko da, nahikoa baita emakume bat tartean egotea, izendatu beharra izateko.*

**BEREZKO.**- Natural.  
**BIDEA URRATU.**- Abrir el camino.  
**ERABILTZEKOTAN.**- Erabili nahi bada. De utilizar.  
**ERAGIN.**- Influencia.  
**ERAIKI.**- Construir.  
**EZAUGARRI.**- Berezitasuna. Característica.  
**GIZONEZKO.**- Gizasemea. Varón.

**GUNE.**- Espacio.  
**HARGINESA.**- Gizasemea denean: hargin. Cantero.  
**HELARAZI.**- Hel(du)+arazi. Hacer llegar.  
**HIZTUN.**- Hablante.  
**ISLATU.**- Errainutu. Reflejar.  
**JOERA.**- Tendencia.  
**MAILEGU.**- Préstamo.  
**MEZU.**- Mensaje.  
**ZUZENTASUN.**- Corrección.



### Hitanoa, hamaika komeria!



Ritxi Lizartza

**A**ditu eta ez hain adituen ustean, hizkuntzak, aberastasun iturri paregabeak. Baina arazo ere bai? Euskara bera, arazo ote...? Eta euskalkiak ere bai? Eta Hitanoa? Beno, beno, beno...!!! Nagon, negon, neon, nion, natxion, nitxon, nagoela, nagonala, natxionala, nionala... Eta maskulinoa aipatu gabe!! Eta Gipuzkoatik atera gabe! Harritzekoa! Nola ulertu elkar hainbeste adierarekin? Modu **zuzenik**? Bai ala ez? Baina ez! baturako formen beharrik, **inondik ere ez!** Nola ba! Etxeko moduan eta kitto!! Baina, noren etxea? Nork bere etxekoa? Eta etxea herriaren mugan egonez gero, eta etxekoak Lazkaokoa bata eta Aretxabaletakoa bestea izanez gero? Horrelakoetan lasai, bikoteak beti zuka elkarri, kristau zintzoen moduan. Animaliei, berriz? Guztiei **toka**? Hau komeria! Ikusten? Euskaraz bakarrik ezin parekatu emakumea eta animalia. Hizkuntza femenino, feminista ala emakumezalea ote? Hara, horretan ere, ezin jakin! Ba ote **sendabelarrik** arazo kezagarri honetarako? Adiera guztiak euskararen aberastasuna bai, kolorea, aniztasuna, herriaren zaporea eta **sena**. Ezin ukatu beren balioa, baina zoritxarrekoak euskaldun berriak, zoritxarrekoak komunikabide orokorrak, zoritxarrekoak unibertsitatea eta ikerketa guztiak. Zoritxarrekoak gurasoak bailara batekoak izan eta beste bailara batera edo kapitalera bizitzera joandakoak. Zoritxarrekoak? Horiek beharrik bai, ala, hitanoa ezagutu eta erabiltzeko? Bai zera! Hobe betiko moduan, kaleko hizkera kalerako utzita. Nola ba, nahastu, hitanoa eta **maila jasoa**? Zerrenda txukunak, polit askoak baturako egindakoak... Baina, zertarako? Ba ote baliorik kartoizko euskaratik kanpo erabiltzeko? Bai, bai, euskara **esparru** guztietara iristeko gauza izan eta frogatzea, baina eguneroko jardunean... alferrik! Halako lana, halako zerrenda ederrak... eta zer eta euskal senaren aurkakoak izateko! Ño! Hori marka!

Beraz, biderik bai, hitanoak gure artean **irauteko**? Garai batean Jainkoari berari ere hika, bai ausartak gure **arbasoak!** Orain, ordea, mendetako desprestigioa eta bazterketa... Eta **galbidean**. Komunikabideetan ere **ez agertzekotan**, hitanoa galtzaile, baina, inondik ere, beharrik bai hitanoak

irauteko? Zutabegile asko, erabiltzearen aldeko, eta baturako egindakoa aukeratu iritzi artikulua egiteko. Moda? Beharra? Deskubrimendua? Erreferente berrien bilaketa? Nor ote kazetariaren beraren **solaskide** ezkutua? Eta gainerakook ezin jakin! Hitano baztertzailea, misterioitsua eta sekretuzalea? Era guztietara, hitano ustela, proxenetadun hitanoa, puteatua eta deputapena erabilitakoa. Ala hitano eredu txukuna ote Euskal Herrian bazterrik bazter gazteek **eskuarki** erabilitakoa? Edo emakumezkoiei toka egiteko kostaldetik zabalduko joera berria? Horretan ere matxismoa nagusi?

Azken batean, mauletar emakume batek esan behar: denok kontrako pentsatu arren, hitanoa, generoa bereizteari esker, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako bidea. Eta ez zukakoa, baztertzaile eta maskulinoa!

Ah! Artikulutxo hau nola, hika ala zuka idatzirik? Toka ala noka? Edo hitanoa erabilia edo forma neutroa? Edo alokutiboa edo eztabadakoa...? Ai, ama!!! Beno, hemen ere berdintasunaren alde: ai, aita!!!

- ADITU.**- Jakituna. *Experto/a.*
- ARBASO.**- Asaba. *Antepasado.*
- ESKUARKI.**- Normalean. *Comúnmente.*
- ESPARRU.**- Eremua, saila. *Ambito.*
- EZ AGERTZEKOTAN.**- *De no aparecer.*
- GALBIDE.**- *Camino de perdición.*
- HAMAIKA KOMERIA.**- *Muchos problemas.*
- INONDIK ERE EZ!.**- Inola ere ez! *¡De ninguna manera!*
- IRAUN.**- *Durar.*
- MAILA JASOA.**- *Nivel culto.*
- NOKA.**- Hitanoan emakumezkoari hitz egiten zaionean erabiltzen den moldea.
- SEN.**- *Instinto.*
- SENDABELAR.**- *Hierba medicinal.*
- SOLASKIDE.**- *Interlocutor/a, contertullio.*
- TOKA.**- Hitanoan gizasemeari hitz egiten zaionean erabiltzen den moldea.
- ZUZEN.**- *Correcto.*



**Nagon, negon, neon, nion natxion, nitxon, nagoela, nagonala, natxionala, nionala...**

- Ezagunak al zaizkizu molde hauek? EZ  BAI
- Non entzun/irakurri dituzu?
  - Euskaltegian
  - Lagunartean
  - Etxean
  - Telebista eta irratan
  - Egunkarian
  - Literaturan
  - Bertsoetan
  - ...

Aukeratu dituzun egoera horietan molde horiek entzun/irakurri dituzunean, izan al duzu ulertzeko arazorik? EZ  BAI

• Horrelakoetan norengana jo duzu argibide bila?

Lagunengana   
Irakaslearengana   
...

• Hitanoaren inguruko zure iritzia jakin nahiko genuke. Idatziko al dituzu lerro batzuk zure irudipenak azalduz?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

# INTERESGUINEA

## Hizkuntzarik unibertsalena? musika

Lehenengo batean, Donostiako Konstituzio Enparantzan nire Lohiko kafetxoa hartzeko prest nengoela, gertaera batek harritu ninduen: arratsaldeko zortziak izango ziren gutxi gora-behera eta plazan alde batetik bestera, gora eta behera, **atzerritar**-pila zebilen. Orain arte kontatutakoak noski ez ninduen harritu, baina pixkanaka-pixkanaka eta ia konturatu gabe beraien elkarrizketetan sartzen joan nintzen. Atzerritar haiek guztiak mintzatzen ziren bitartean entzuten nituen hizkuntza haien hots eta soinu berezietan erreparatzen hasi nintzen. Eta berehala ideia bat **bururatu** zitzaidan. Nik hizkuntza haiek guztiak konprenitzeko gai ez izan arren, badira hainbat hizkuntza, unibertsalak direnak. Gizakion **senak** bere barnean daraman hizkuntza multzo berezia. Haurren hizkuntza zoragarria, **keinuena**, **oihuena**....eta abar. Ziurrenik kafearen "liturgiak" nigan lasaitzeko duen eragina medio, nire pentsamendua sakonduz joan nintzen. Gizakiok betidanik ezagutu dugun hizkuntzarik unibertsalena musika dela konturatzerira iritsi arte. Hizkuntz konplexu eta erraza aldi berean. Guztiok ulertzeko gai garena. Gure sentimendu ezkutuenak hankaz gora jartzeko edo azaleratzeko gai den hizkuntza.

Egia esan, musika hizkuntza unibertsala bezala ulertuz gero, amaierarik gabeko zerrenda idatzi beharko nuke, baina beste arlo batzuetan gertatzen den antzera, badira artista edo talde batzuk urteak pasa ahala Errioxako ardoen antzera hobetuz doazenak bere musika-hizkuntzaren unibertsaltasuna **areagotuz**.

- Zaharrenarekin hasiko gara, nire iritziz behintzat, musikak eskaini duen ahotsik eta tronpetarik zoragarrienetako bat: Louis Armstrong jauna (*When the saints go marchin in, Hello Dolly, What a wonderful world, Georgia on my mind*.... eta abar).

- Bigarrenik, britaniar laukote bat aipatuko nuke: Liverpooletako Kakalardoak "The Beatles". Nork ez du talde honen musika hizkuntza ulertzen. Gainera duela gutxi argitaratu berri da bere singleen azken lana.


- Eta azkenik, hizkuntza berezia azaltzen zuen musika aipatu nahi dizuet. Azken boladan, gaur egungo artistengan izandako eraginagatik aipatua izan dena gainera: David Bowie. Bere argitalpenen artean nire ustez **ezinbestekoa** da "Ziggy Stardust" aipatzea. Zoragarria.

**Dasta** itzazue hiru lan hauek patxada ederrean, musika-hizkuntza ulertzeko hiru bide desberdin erakusten baitigute.



**AREAGOTU.**- Handiagotu. *Aumentar.*  
**ATZERRITAR.**- *Extranjero/a.*  
**BURURATU.**- Gogora etorri, otu.  
**DASTATU.**- *Degustar.*  
**EZINBESTEKO.**- Behar-beharrezkoa. *Indispensable.*  
**GERTAERA.**- *Suceso.*  
**KEINU.**- *Gesto.*  
**OIHU.**- *Garrasia. Grito.*  
**SEN.**- *Instinto*

# Hamaika trikimailu



**H**izkuntza bat ikasten ari garenean normala da hainbatetan arazotxoak aurkitzea: hitz bat nola esaten den ez jakitea, ondokoek ulertzen ez duten zerbait esatea, hitz egiten digunari ondo ez ulertzea, desanimatzea... Eta hori bezain normala izaten da arazotxo horiei buelta ematea; hori, ordea, ez dugu denok modu berean egiten: norik bere estrategiak izaten baititu.

Atal honetara gonbidatu bat ekarriko dugu, bereak azal ditzan.

## Roberto Martínez Rípodas

Roberto Martínez Rípodas, Tiko, Osasuna taldeko jokalaria zen, eta egun San Mamesen ematen dizkio ostikoak baloiari. Euskarazko lehen urratsak ere Nafarroan eman zituen: lehenik Francisco de Jaso ikastolan eta gero Iturruma institutuan. Gurekin hitz egin eta hurrengo astean Durangon hastekoa zen AEKn.



1.- Hizketan ari zarela, zer egiten duzu esan nahi duzun hitza ezagutzen edo gogoratzen ez duzunean?

*Antzeko beste hitz bat bilatzen saiatzen naiz, edo nirekin hitz egiten ari denari galdetzen diot, batzuetan gaztelaniaz galdetzen diot.*



2.- Eta... esan nahi duzun hori oso korapilatsua iruditzen zaizunean?

*Idea bera beste modu sinpleago baten esaten saiatzen naiz. Nire gramatika, hiztegia... ez dira oso aberatsak, eta horregatik.*



3.- Zer egiten duzu esan berri duzuna ulertu ez dutela konurtzen zarenean?

*Bere aurpegiaren itxurak ulertu ez duela esaten badit, beste modu batera esaten saiatzen naiz, eta oso garrantzitsua bada esan nahi dudana, erderaz esaten dut.*



4.- Eta... zurekin hizketan ari den pertsona bati ulertzen ez diozunean?

*Orain dela gutxi gertatu zait baserritar batekin, herriko euskera hori ezin ulertu, eta ulertuaren itxura egin dut.*



5.- Telebista, irratia... entzuten ari zarela, ezer egiten duzu entzuten duzun hori hobeto ulertzeko?

*Askotan ulertzen dut esaten dutena. Nik entzuten dudana irratia batuz da, eta hori erraza da. Telebistan, irudiak lagundu egiten du, eta ezagutzen ditudan hitzak baliatzen ditut zer esan duten jasotzeko.*



6.- Hitzetara etorri... ezer egiten duzu hitz berriak ikasteko? Zer?

*Lagun batekin bizi naiz, eta hark nahiko ondo daki, hari galdetzen diot. Eta zerbait irakurtzen ari banaiz, batzuetan orriaren azpiko aldean azalpenak etortzen dira.*



7.- Eta... nahasten dituzun bi hitz bereizteko (sartu-atera, piztu-itzali, gelditu-gidatu, galdetu-galdu, esate baterako) zer trikimailu erabiltzen duzu?

*Iruñean bazen denda bat "Merke" izenekoa eta merke eta garesti nahasten nituen. Eta zerbaitekin erlazionatzen dut ez nahasteko.*



8.- Euskaraz zerbait irakurri behar duzunean, ezer egiten duzu irakurtzen hasi aurretik? Zer?

*Hasieran kostatu egiten zait irakurtzea... baina piskat berotutakoan (sic), sartu egiten zara istorioan, erlazionatu egiten dituzu hitzak, kontestua... Ohitzen joaten zara.*



9.- Zerbait irakurtzen duzunean, zer egiten duzu ezagutzen ez duzun hitz bat topatzen duzunean?

*Iruñean oso aukera gutxi nituen euskaraz hitz egiteko, eta urdu-ri jartzen nintzen elkarrizketaren bat euskaraz egin behar zidatenean. Beraz, saiatzen nintzen liburuak eta irakurtzen. Hitzen bat ulertzen ez banuen, kontestua-aren laguntzarekin saiatzen nintzen ulertzen. Bilbon aukera gehiago dut euskaraz aritzeko.*



10.- Zer egiten duzu gogoan gelditzen ez zaizun edo nahasten duzun egitura gramatikal bat ikasteko?

*Ahal badut, norbaiti galdetu. Datorren astean Durangoko AEKn hasiko naiz eta hobera egitea espero dut. Ea EGA ateratzen dudana!*



11.- Nola jokatzeko duzu zerbait idatzi behar duzunean?

*Aurrena idatzi behar dudana pentsatzen dut, eta ondoren idazten ari naizen bitartean, eta idatzi ondoren, irakurri egiten dut ea ondo dagoen edo...*



12.- Eta... zer egiten duzu euskara ikastea oso zaila dela iruditzen zaizun egun horietan?

*Aurretik egiten dut saioa. Liburu bat irakurtzen dut euskara aberatsagoa izateko. Eta irakurtzean, hitzen bat ulertzen ez badut, eta hitz hori berriz azaltzen bada, errazagoa da entenditzea... Gutxieneko euskara hori ulertzea ez da hain zaila, zaila dena da gero hori erabiltzen jakitea... Nik ezagutzen dut jendea ETB edo beste zenbait gauza ulertzen dituztenak eta gero hasten zara beraiekin hizketan eta kosta egiten zaie...*



## BIKOTEAK ELKARREKIN BEHARREAN

**B**ada gaztelaniaz atsotitz bat "olla" hitzarekin erri-  
ma osatuz amaitzen dena, lantokiko lankideekin  
harremanik ez izateko aholkatzen duena, baina bikote  
askok lanbide bera dute gurean, eta ez badute, berriz,  
lantoki berean **egiten** dute **behar** behintzat. Guk ego-  
era horretan diharduten hiru bikote aukeratu ditugu.  
Lehendabiziko bikotea, Imanol Estalayo eta Mari  
Carmen Ansa, elektragailuen arloan dabil, sukaldeko  
tresneria ere saltzen dute. Bigarrena, Juan Alkorta eta  
Lurdes Astiazaran harategira joaten da fitxatzera eta,  
azkenak, Juan Carlos González eta Marisol Fernández  
dira, koadroei markoak eta kristala jartzen dizkietenak.



# izketa

## BIKOTEAK ELKARREKIN BEHARREAN

**M**ari Carmen Ansa eta Imanol Estalayo senar-emazteak dira. Sukaldeko tresnak, sukaldea garbitzeko jeneroa... saltzen dute Estalayo izeneko dendan, Koldo Mitxelena kultur unetik gertu. Elkarrekin lan egiten dute, baina ez elkarren ondoan, edo hain ondoan ez behintzat.

**HABE.-** Noiztik ari zarete lanean elkarrekin?

**M.C.A.-** Orain hamabost urte. Negozio familiarra da, baina kanpoko jendea ere badaukagu.

**I.E.-** Hasi ginenean familiarragoa zen.

**H.-** Eta ze diferentzia dago familiarra izan ala ez izan...

**I.E.-** Ez dakit. Etxekoekin "bronka" gehiago igoal, baina azkenerako konfiantza gehiago ere bai... baina kanpoko jendearekin ere konpontzen gara.

**M.C.A.-** Daude gauza onak eta txarrak. Etxekoekin haserretzen bazara, agian okerragoa da. Baina ondo eramanez gero...

**I.E.-** Hamabost urtetan egunero elkarrekin bazkaltzen biok, hemen edo inguruan...

**M.C.A.-** Lehen saltzaileekin eguerdian biltzen ginen, eta orain bazkalondoren. Adibidez, nik erabakitzen dut dendarako zer erosi eta berak tailerraren ardura du. Bakoitzak bere lana du, eta horrela errazagoa da. Ni goian egoten naiz, eta Imanol hemen behean... lanez **gainezka** bagabiltza edo igoko da gora laguntzera, baina bere tokia hau da. Baina arratsaldetan alabak ikastolatik etortzen direnean, seiak aldera, ni etxera joaten naiz eta bera dendara igotzen da.

**H.-** Lanari buruz hitz egiten duzue etxean?

**M.C.A.-** Askotan komenigarria da. Zerbait gaizki egin badugu, hurrengoan hobetzeko...

**I.E.-** Batzuetan hitz egiten dugu lanaz, baina ezta gehiegi ere.

### Autobus geltokiko amak

**H.-** Elkarrizketa hau prestatzen ari nintzela irakurri nion zuen antzeko bikote bati lanetik kanpo elkarrengandik aparte xamar ibiltzen saiatzen zirela, nork bere esparruak izaten, egun osoan, lanean eta **lanetik at**, elkarrekin **ez egote aldera...**

**M.C.A.-** Ba gu ez, guztiz alderantziz. Nik ere musean egiten ikasi nuen, eta ostiralero biltzen ginen beste bikote batekin, neskak gizonezkoen kontra aritzen ginen... lau erregetara bai, hemengo musa, ez Bilboko musa.

**I.E.-** Erreterian ere zortzi erregetara jokatzen dute...

**M.C.A.-** Orain bi alaba ditugu, eta zailagoa da biltzea. Nik lagunak Astigarragakoak ditut, eta igoal biltzen gara afaltzeko, eta Imanol bere koadrilarekin, baina azkenean bi koadrilak bat egiten dugu, horretan saiatzen gara. Dena den, guk egiten dugu afari bat, "madres de la parada", autobusean uzten ditugu umeak eta beti berak juntatzen gara, kafetxo bat hartzen dugu... zuk aipatu futbolekoak.



**I.E.-** Asteazkenean futbolean jokatzen dut, baina afariak ere emazteekin izaten dira gehienak. laz ez, adibidez. Eta Astigarragako festetan bakoitza bere koadrilarekin, baina azkenerako juntatu egiten gara.

**H.-** Eta oporrak nola antolatzen dituzue?

**M.C.A.-** Oporrak ere elkarrekin egiten ditugu, baina beti dendako azkenak gara oporrak hartzen. Beti esaten dugu aurretik hartuko ditugula, baina beti azkenak gara. Hamar urte daramazkigu Aste Santuan Benidorm-a joanez.

**BEHAR EGIN.-** Lan egin.

**EZ EGOTE ALDERA.-** Ez egoteko.

**GAINEZKA.-** A rebosar.

**LANETIK AT.-** Lanetik kanpora. *Fuera del trabajo.*







# Elkarrekin

## BIKOTEAK ELKARREKIN BEHARREAN

Juan Alkorta eta Lurdes Astiazaran senar-emazteak dira. Harategi batean egiten dute behar, arrantza-ikutua duen Balleneros kalean. Biak lehendik beste lan batzuetan aritukoak dira, eta Juan itzuliko litzateke lehengo lanbidera, ganadu-hiltzaile edo matarife baitzen, baina emaztearekin ere pozik lan egiten du, **egiten duenez**.



HABE.- Noiz hasi zineten?

JUAN ALKORTA.- 1982an hasiko ginen Azpeitian. Han urte batzuk egin genituen eta hemen (Donostian) beste hamabi urte badaramazkigu. Elkarrekin, beraz, hamazortzi bat urte izango dira.

H.- Orain daukazue harategian alde batetik haragi-kontua, gero bestetik esnekiak eta, eta baita **lekak** eta piperrak eta... Betidanik izan al da horrela?

J.A.- Txarkuteria betitik izan dugu, baina beste hori ez. Geroz eta gauza gehiago eskaintzen dituzu, guri ere hala etortzen zaizkigulako jeneroa eskaintzera, **bezeroa** ere eskatzen ari da...

H.- Nola antolatzen, nola **adosten**, duzue hemen barrukoa? Juan, zuk haragia eta horren ardura duzu, eta zuk Lurdes beste guztiarena?

LURDES ASTIAZARAN.- Beti elkarri esanda ibiltzen gara, "hau zer iruditzen zaizu edo?"

J.A.- Betiko gauzak erosteko ez dago hitz egiten egon

beharrrik, badakigu zer egin. Gero badira bihurtzeko batzuk honek direktamente atenditzen dituenak. Haragi asuntua nik eramaten dut. Baina elkarren berri jakinda ibiltzen gara.

H.- Esan duzue geroz eta jende gehiago datorrela bere jeneroa harategiaren bidez saltzeko asmoarekin. Ez da erraza izango erabakitzea harategiak zer norabide hartu behar duen, zuen bion gustuen eta iritzien arabera izango da...

J.A.- Baita, baita. Baina hori baino gehiago harategiak berak esango dizu nondik jo: ze neurritako lokala daukazun, non zauden, bezeroak ze eskatzen dizun... horiek guztiak **hartu** behar dira **aintzat**.

H.- Harategian jenero saltzea azken urratsa da. Harategiak lan handia ematen du harategitik kanpo ere. Harategia ireki aurretik ari gara hizketan, eta zu Lurdes saltxitxak egiten ari zinen ni etorri naizenean.

L.A.- Batzuetan ni aritzen naiz saltxitxak prestatzen, bestetan, gizona.

J.A.- Aurretik lan handia eskatzen du, eta ez bakarrik mostadore txukun izatea eta labanak zorroztea... Baserriz baserri ibili **txahalak** zer jaten duen, kalitatea kontrolatzea, alegia. Harategi kanpoko lan horretaz ni arduratzen naiz.

### Hamazortzi urte elkarrekin lanean

H.- Elkarrekin lan egin duzuen 18 urte horietatik aparte inoiz lan egin duzue?

L.A.- Niretzat oso diferentea zen lana. Urte askotan baserrian, gero tabernako sukaldean, jendearekin tratatzea falta zitzaidan, baina jarri naiz horretara ere.

J.A.- Eta nik, berriz, matarife; oraindik ere jarraituko nuke lanbide horretan. Baina repartoa bizkarka egiten genuen, eta hori nekoso zen; orain hori ere asko hobetu da, baina... 14 urtez gero beti jendearen aurrean nabil, matarifetako sei urteak kenduta.

H.- Elkarriketa hauek prestatzerakoan irakurri nion bikote bati lanetik kanpo ere elkarrekin ibiltzen direla ia beti. Ez direla elkarren ondoan **aspertzen**, beste batzuek, aldiz...

J.A.- Gu ere elkarrekin ibiltzen gara gehienez. Baina ni gimnasia joaten naiz, edo bizikletan ibiltzera, hau umekin doa plazara, badira orduak apartatzen garenak, ze beti elkarren ondoan...

H.- Zuk, Lurdes, ba al duzu bestela afizioen bat?

L.A.- Ez... Beno, jai goizetan lo egitea... ez dut nahi adina egiten baina. Umeak eta...

(LAN) EGITEN DUENEZ.- *Vaya que si trabaja.*

ADOSTU.- *Consensuar.*


AINZAT HARTU.- *Kontuan hartu.*

BEZERO.- *Cliente.*

ESNEKI.- *Derivado de la leche.*

LEKA.- *Vaina.*

TXAHAL.- *Tenera.*





# izketa

## BIKOTEAK ELKARREKIN BEHARREAN

**E**z. Gonarte hitzak ez du **gonarekin** zerikusirik, Gon + arte baita, eta Gon hori Gonzalez deiturari dagokio, Juan Carlos Gonzalezi hain zuzen. Berak jarri zuen, ezkondu aurretik, koadroei markoa eta kristala jartzeko denda-tailerra. Denda ireki eta gutxira emaztea, Marisol Fernandez, lanean hasi zen senarrarekin.

**HABE.-** Juan Carlos, zure gurasoek horrelako denda bat dute Beasainen.

**JUAN CARLOS GONZALEZ.-** Hala da. Eta ia bost urte dira hau Ordizian jarri nuenetik, urtebete edo beste neska batekin aritu nintzen lanean, eta Marisolek ia hiru urte egingo ditu hemen.

**H.-** Ze alde on eta txar ikusten dizkiozu emaztearekin lan egiteari?

**J.C.G.-** Onak negozioa berea ere badela, eta, beraz, gehiago saiaturiko dela aurrera atera dadin. Alde txarrak, bada eztabaidak normalean lan-kontuengatik direla.

**MARISOL FERNANDEZ.-** Alde onak, koordinatzeko errazagoa da. Segun zer egin behar den, nik egiteko askatasuna dut, erabakitzea, eta kanpoko batek ez. Bestalde, nik laneko arazoak etxera eramaten ditut. Bera trebeagoa da ni baino bi arlo horiek bereizten. Ni ikasten ari naiz **bereizten**.

**J.C.G.-** Nik ere ikasi egin behar izan dut. Denda hasiberrian neuk ere etxera eramaten nituen laneko arazoak. Baina gure etxean normala izan da beti laneko arazoez hitz egitea, gurasoek antzeko denda dutelako Beasainen, eta giro hori beti bizi izan dugu.

**H.-** Elkarrekin lan egiten duten hainbat bikotek diote, aisialdian komeni dela neurri batean norberak bere esparrua izatea, bere afizioak, bikotekidearenak ez direnak...

**J.C.G.-** Gu hemendik kanpo elkarrekin ibiltzen gara. Ze lanean ez gaude hainbeste elkarrekin. Alde batetik, ni jendaurrean ez naiz apenas egoten, ia tailerrean beti. Eta Marisol, berriz, goizetan gure amarengana joaten da lanera, dendara.

**H.-** Beraz, Zuk, Marisol, izugarritzko meritua daukazu...

**J.C.G.-** Ni aguantatzea...?

**M.F.-** (barreak).

**H.-** Ez. Amaginarrebarekin lan egitea... Zein lankide da hobe, senarra ala amaginarreba?

**M.F.- Amaginarrebak** gauzak xuabe esaten dizkizu. Juan Carlosek, berriz, ez du **herdoilik** mingainean. Esan beharreakoa esateko erreparo edo lotsa gutxiago, beste era bat gauzak esateko, konfiantza gehiago...

### Ondoen bakarrik

**H.-** Oso ezberdina al da amarekin edo emaztearekin lan egitea...?

**J.C.G.-** Ondoen bakarrik egiten da lan. Bestela, berdin zait.



Bakoitzak bere egitekoak ditu, eta hori ondo eramanez gero...

**H.-** Marisol, beste lanik izan al duzu?

**M.F.-** TeleDonostirako **iragarki** bila.

**H.-** Eta ze **alde** handik hona?

**J.C.G.-** Aldeak? Lehen lau hilabeteetan ez zuela **xemeikorik** ikusi.

**M.F.-** Han ordutegi zorrotzagoa zen. Eta beste batentzat ari nintzen lanean. Hemen, badakit nire lanaren ordaina niretzat dela, eta eman beharreko urratsak ez dizkit inork ezartzen, han bai.

**ALDE.-** Diferencia.

**AMAGINARREBA.-** Suegra.

**BEREIZI.-** Diferenciar.

**GONA.-** Falda.


**HERDOIL.-** Oxido.

**IRAGARKI.-** Anuncio publicitario.

**XEMEIKO.-** Bost xentimoko sosa.

**ZE.-** Bada. Pues.





## Ranka Bjeljac-Babic

Hizkuntzaren psikologiako katedraduna eta ikertzailea  
Poitierseko unibertsitatean (Frantzia).

# SEI MILA HIZKUNTZA: OMIKROKO

Urtean hamar hizkuntza hiltzen dira batez beste munduan; hamar kultur altxor galtzen ditugu, beraz. Baina hizkuntzak gero eta azkarra- go ari dira hiltzen eta premia-premiazkoa da horren kontrako neurriak hartzea.

Egia al da ia hizkuntza guztiak galdu egingo direla epe labur- rean? Hizkuntzalarien arabera, hizkuntzek 100.000 **hiztun** behar dituzte, gutxienez, bizirik iraun ahal izateko. Gaur egun, 6.000 hiz- kuntza inguru daude munduan: erdiek 10.000 hiztun baino gut- xiago dituzte eta laurdenak ezta 1.000 hiztun ere. Hogei dira hain- bat milioi hiztun dituzten hizkuntza bakarrak.

Hizkuntzen heriotza aspaldiko kontua da. Dibertsifikatzen hasi zirenetik, 30.000 (zenbaiten ustez, 500.000) sortu eta hil dira, gutxienez, sarritan inolako **aztarnarik** utzi gabe. Gainera, nahikoa denbora laburra egin dute bizirik. Oso hiz- kuntza gutxi iraun dute 2.000 urte baino gehiago: euskarak, egiptoerak, txinerak, grekoak, hebreerak, latinak, persierak, sanskritoak, tamilak...

### Konkista kolonialetatik mundializaziora

Baina, orain, hizkuntzak oso azkar galtzen dira, eta hori feno- meno berria dugu. Egin dezagun, bada, denboran atzera. Europako konkista kolonialen **eraginez**, hizkuntz **aniztasunak** behera egin zuen oso denbora laburrean: **garai hartako hizkunt- zen %15, gutxienez, hil egin zen**. Azken hiru mende hauetan, hamar bat hizkuntza galdu dira Europan. Australian, berriz, 20 **baino** ez dira geratu, eta kontuan izan behar dugu XVIII. mende- aren bukaeran 250 hizkuntza zituztela. Brasilen 540 galdu dira (hiru laurdenak, beraz) 1530etik hona; portugesen kolonizazioa hasi zenetik, alegia.

Estatu-nazioen sorrera **erabakiorra** izan zen. Horrelako egitu- retan lurralde batasuna eta hizkuntzaren homogenizazioa **banae- zinak** izaten dira. Ondorioz, nazionalizat hartutako hizkuntzak **tinko errotu** ziren eta **gainontzeoak**, aldiz, baztertuta geratu ziren. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan hiz- kuntza bakarra ezartzea izan zen estatuetako gobernuen helburu bakarra eta, horretarako, hizkuntza minorizatuak desagertarazten saiatu ziren.

Hizkuntz homogenizazioaren aldeko prozesua indartu egin zen industrializazioaren eta **aurrerapen** zientifikoaren ondorioz, komu- nikazio-modu berriak **nagusitu** baitziren: azkarrak, errazak eta praktikoak. Hizkuntz aniztasuna ezagutzen **hedapenaren** kontra- koa zela hasi ziren esaten. **Elebakartasuna** bihurtu zen nahitaez lortu beharreko ideala. XIX. mendearen bukaeran hizkuntza uni- bertsala aukeratzeko premia hasi ziren **aldarrikatzen** (latina berri- ro erabiltzen hastea ere pentsatu zuten) eta hizkuntza artifizial pila bat sortu zituzten, horrela. Volapük izenekoa izan zen lehenengoa, baina esperantoak izan zuen arrakastarik handiena, eta baita irau- penik luzeena ere.

Hizkuntza "txikiak" gero eta mehatxu gogorragoei **egin** behar izan diete **aurre**. Hiru arazo nagusi izan dituzte: finantza-merka-

Guaraniaren amaiera  
heltzen bada, nork **egingo** du  
**otoitz** ez dadin munduaren amaie-  
ra ere heldu?  
Guaraniaren atsotitza  
(Paraguai)

tuen internazionalizazioa, informazioa komuni- kabide elektronikoen bidez hedatzeko aukerak eta mundializazioak eragindako gainontzeko ondo- rioak. Interneten sartzerik ez duten hizkuntzak "**gal- biderantz**" abiatzen dira, gaur egun, "merkataritzatik" **at** geratzen baitira.

**Arbasoengandik**  
jasotako hizkuntzak beste  
ezerk baino askoz ere denbora luzea-  
goz irauten digu bihotzean.  
Pentsamenduak askatu, burua ireki eta  
bititza gozatu egiten digu.  
Sami hizkuntzan idatzitako  
poema (Suedia)

Hizkuntzak inoiz ez  
dira orain bezain azkar  
galdu: urtean hamar.  
Iragarpenik **ezkorre-  
nen** arabera, hizkunt-  
zen %50 edo %90 hil  
egingo dira datorren  
mende **honetan**.  
Premiazkoa da,  
beraz, guztien bizi-  
raupenaren alde  
lan egitea.

Hizkuntzak  
galtzearen  
ondorioak  
ikuspegi asko-  
tatik izango dira  
larriak. Lehenik eta  
behin, gizaki guztiok  
elebakar bihurtuz gero,  
litekeena da **burmuina**  
hizkuntz **sormenerako**  
duen **berezko gaitasuna** galtzen hastea. Bestalde, **inondik  
inora** ezingo genuke izan giza hizkuntzen jatorriaren berri eta,  
jakina, "lehen hizkuntzaren" misterioa ez litzateke inoiz argituko.  
Azkenik, hizkuntza bat hiltzen denean, gure historiaren aldi bat  
ere **behin betiko** galtzen da.

### Kulturantzitasuna eta bioaniztasuna

Hizkuntz aniztasuna dugu kulturantzitasunaren **islarik** nabar- menena. **Lehenengoa** galduz gero, bigarrena ere galdu egingo da. Askotan, hizkuntza jakin bat -berdin dio **eskualde** jakin batekoa edo nazioartekoa izan- inposatu nahi izaten zaie hizkuntza horren



# Albistari tik

## ONDARE ABERATSA ARRISKUAN



Ilustrazioa: Philippe Franchini

1992ko Rioko Gailurrean, bioaniztasunaren **murrizketaren** kontrako neurriak hartzea erabaki zuten. Heldu zaigu, bada, hizkuntzen arazoari heltzeko ueña. Eleaniztasunari dagokionez, XX. mendearen erdian, *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean* hizkuntz eskubideak ere aitortu zituzten. Orduantxe hasi zen pizten gai horren inguruko kontzientzia eta agerian geratu zen hizkuntzak ere **babestu** beharreko ondareak direla. Gerora, nazioarteko hainbat proiektu bideratu dira hizkuntzak babesteko asmoz, jadanik gizateriaren ondaretzat hartzen baitira. Agian ez dute lortuko hizkuntzen galera-prozesua **etetea**, baina **ahuldu** egingo dute, behinik behin. Hizkuntza aniztasunaren aldeko ahalegin hori txalogarria da, benetan.

oso **bestelako** kultura eta bizimodua dituzten herriei. Hau da, isilarazi egiten da herri horien ahotsa. Hizkuntzak ez dira gizakion arteko komunikaziorako oinarritzko tresna hutsak. Hitzunen ezaugarri ugari **uztartzen** dituzte: bizitzari buruzko ikuspegia, irudimena, ezagutzak irakasteko moduak... **Ahaidetasunak ahaidetasun**, hizkuntza bakoitzak bere erara islatzen du errealitatea. Has gaitezen, adibidez, hizkuntza guztietan **esana**hi bera duten hitzen zerrenda egiten. 300 bilduko ditugu, **asko jota**: adibidez, ni, zu, gu, nor, zer, ez, dena, bat, bi, handia, luzea, txikia, emakumea, gizona, jan, ikusi, entzun, eguzkia, ilargia, izarra, ura, sua, beroa, hotza, zuria, beltza, gaua, lurra...

Hizkuntz aniztasunak eta bioaniztasunak arrisku berberak dituzte: batetik, hizkuntza gehienak **galzorian dauden** "espezieak" direlako eta, bestetik, aniztasun biologikoaren eta kulturalaren artean barne-barneko lotura kausala dagoelako. Arriskuan dauden hizkuntzak endemikoak dira, landareak eta animaliak bezala, edo bestela, esparru txiki baten mugen baitan daude. Aniztasun biologikorik handieneko estatuen %80an daude, hain zuzen, hizkuntza endemiko gehienak. Zergatik gertatzen da hori? Giza taldeek lekuan lekuko ingurunearen arabera eboluzionatu eta moldatu behar izaten dutelako. Ondorioz, ezagutza jakin batzuk hartzen eta sortzen dituzte ingurune jakin horretatik abiatuta, eta hizkuntza izaten da ezagutza horien isletako bat edo, askotan, isla bakarra. Hizkuntzak hiltzorian dituzten herri batzuk dira, gaur egun, arriskuan dauden baliabide naturalei buruzko ezagutzak dituzten bakarrak. Hizkuntza horiek hilez gero, ingurugiroari buruzko ezagutza tradizionalak ere bertan galduko dira.

### ◀ EGIN ▶

- Testuan beste kolore batez adierazi ditugu esaldi batzuk:
- Egia al da ia hizkuntza guztiak galdu **egingo** direla epe laburrean?
  - Garai hartako hizkuntzen %15, gutxienez, hil **egin** zen
  - Hizkuntz homogenizazioaren aldeko prozesua indartu **egin** zen industrializazioaren eta **aurrerapen** zientifikoen ondorioz
  - Iragarpenik **ezkorrenen** arabera, hizkuntzen %50 edo %90 hil **egingo** dira datorren mende honetan.
  - Lehenengoa galduz gero, bigarrena ere galdu **egingo** da.
  - Hau da, isilarazi **egiten** da herri horien ahotsa
  - Agian ez dute lortuko hizkuntzen galera-prozesua **etetea**, baina ahuldu **egingo** dute, behinik behin.

Konturatuko zinenez, **egin** aditzak funtzio berezia betetzen du aurreko esaldietan. Aditza galdegaia denean **egin** aditz laguntzaile bihurtzen da. Horretarako, delako aditza era burutuan ezartzen da, eta aspektuaren marka **egin**-ek hartzen du.

#### AHAIDETASUNAK AHAIDETASUN.- *Parentescos aparte.*

**AHULDU.-** Makaldu, moteldu.

**ALDARRIKATU.-** Iragarri. *Proclamar.*

**ALTXOR.-** Gordailua. *Tesoro.*

**ANIZTASUN.-** *Pluralismo, variedad.*

**ARBASO.-** Asaba. *Antepasado.*

**ASKO JOTA.-** Gehienez. *Como mucho, a lo sumo.*

**AT.-** Kanpo. *Fuera de.*

**AURRE EGIN.-** *Hacer frente.*

**AURRERAPEN.-** *Progreso.*

**AZTARNA.-** Arrastoa, zantzua. *Huella.*

**BABESTU.-** Zaindu. *Proteger.*

**BAINO.-** Baizik, besterik.

**BANAEZIN.-** *Inseparable.*

**BEHIN BETIKO.-** Betirako. *Para siempre.*

**BEREZKO GAITASUN.-** *Capacidad natural.*

**BESTELAKO.-** Desberdina. *Diferente.*

**BURMUIN.-** Garuna. *Cerebro.*

**ELEBAKARTASUN.-** *Monolingüismo.*

**ERABAKIOR.-** *Decisivo.*

**ERAGIN.-** *Influencia.*

**ERROTU.-** *Enraizar.*

**ESANAHI.-** Adiera. *Significado.*

**ESKUALDE.-** *Región, comarca.*

**ETEN.-** *Interrumpir.*

**EZKOR.-** *Pesimista.*

**GAINONTZEKO.-** *Restante.*

**GALBIDERANTZ.-** *Hacia el camino de perdición.*

**GALZORIAN EGON.-** Galtzear egon. *Estar a punto de perder.*

**HEDAPEN.-** Zabalkundea. *Difusión.*

**HIZTUN.-** *Hablante.*

**INONDIK INORA.-** *De ninguna manera.*

**ISLA.-** Errainua. *Reflejo.*

**MURRIZKETA.-** *Expoliación.*

**NAGUSITU.-** Gailendu. *Prevalecer.*

**ONDARE.-** *Patrimonio.*

**OTOITZ EGIN.-** Errezatu. *Orar.*

**SORMEN.-** *Creatividad.*

**TINKO.-** Irmo. *Firmemente.*

**UZTARTU.-** Lotu. *Vincular.*



# Agatha Christie, misterioaren dama!

**I**beltzaren 12an 25 urte beteko dira Agatha Christie hil zela. Jaio, berriz, 1890an jaio zen. Gillian Gill irakasleak idatzitako *Agatha Christie. The woman and her mysteries* liburuak dioenez, W. Shakespeare **herkideak** baino gehiago saldu du, 104 hizkuntzatan. Euskaraz, Koro Nabarro itzultzaile dela, Txertoa argitaletxeak *Hamar Beltx plazartua* du. ETBn ere badute **eleberri** horretan **oinarritutako** filma, euskaratua jada, *Hamar Beltxko*, egundaino ikusi ez duguna. Baina, A. Christieren lanen artean gure inguruan **hedapenik** handien izan duena Txalo taldearen eskutik etorri da. Antzerki-talde hau. bost urte daramatza idazlearen *The Mousetrap* antzeztan euskaraz, 50en bat emanaldi, zein gaztelaniaz, beste 750en bat saio.



Agatha Christie

**parada** izan dute: 48 urte daramatza karteldegian!

## Jaiotetxea atsegin

Agatharen gurasoak Fred Miller eta Clara Boehmer ziren. Lehen alaba jaio ostean etxe berria erosi zuen amak. Hantxe jaioko zen Agatha Mary Clarissa. Ama-alabei **hagitz** gustatzen zitzaien etxea. 1926an etxea **saltzeaz** zutela, larri ibili zen Agatha, urduri: ez alde egin nahi handik! Ondorioz, etxea galtzeko beldurra azalduko da A. Christiren bi lanetan. Finean, 1936an saldu zuten, etxea inguruko arbola eta belardirik gabe geratu

baitzen, etxe berri itsusiek itota. **Etxe berrira aldatzean, ama-zenarekin** txikitari izandako batera joango dira. Etxe berriari ordu asko, diru asko, eskaini zizkion idazleak. Hala dio G. Gillek Agathaz: "Etxea bere soldatarekin erostea zeukan emakume bakantekoa zen; ez zuen horretarako ez senarraren, ez ezein maitalaren, ez oinordekotzan utzitako dirurik behar".

Archibal Christie militarrekin ezkondu zen. Hortik datorrakio deitura, eta 40 urterekin Agatha bigarren ezkontzean, eutsi egin zion aurreko abizenari. Baina Mary ere bazen Agatha, eta bigarren zati hori erabiliko du poli-ziakoak ez diren bere hainbat eleberri sinatzeko:

Mary Wesmacott. Beste ezizen hau ere erabili zuen: Agatha Christie Mallowan.

Hercules Poirot belgiarra da A. Christiek sortu duen pertsonaiarik ezagunena, hilketa gehien argitu dituen. Baina badira beste batzuk ere: Tommy & Tuppence Beresford gazteak, Jane Marple, Ariadne Oliver... Azken emakume honi, A. Christie-ri bezala, idaztea gustatzen zaio. Gill aintzat harturik, A.


Christiek, **zahartu ahala**, gizakiak gorde beharreko baloreak bi emakume horiengan islatzen ditu, Poirotengan baino areago.

Txalo taldeak **egitasmo** hau martxan jarri zuenean, A. Christiren **oinordekoei** lana **euskaratzeko** baimena eskatu zien. Haiek ez zuten euskararen berririk. Euskararen **eremua** zein zen jakin nahi izan zuten, eta Txalori diru-mordoa eskatzeaz gain, antzezlanaren itzultzaileen curriculum-ak ere eskatu zituzten, Beatriz Zabalondo eta Txilikurenak.

Antzokian ikus-entzuleek adi egon behar dute. Alde bate-tik, hala egon behar delako antzerkian, eta

bestetik, **atsedenaldian** ikusleek asmatu egin behar dutelako hiltzailea nor den. Asmatzaileen artean hilero bidaia bat oparitzen dute Londona, Bilboko ferryan. Baina ez da erraza asmatzen. Hala dio G. Gillek: "A. Christiren nobelen indarra hiltzailea nornahi izan litekeela da -magiaz beteriko umea, andereño xarmanta, komandante zoragarria, mediku azkarra, amona tuntuna-" Eta hiltzailea zein den asmatuta joan dira hainbat antzerkizale Londona, **asteburu pasa**: santurtziar bat, errenteriar bat, granadar bat... Agian *The Mousetrap* ingelesez antzeztuta ikusteko

Liburu hau Koro Nabarrok euskaratu zuen.



Agatha Christie pianojole ona izan zen gaztetan. Sukaldean ere ondo moldatzen zen, eta loreekin... Kazetariak ez zituen, aldiz, begibistan ikusi nahi. Idazlearen berri gehiago liburu honetan duzue: GARATE Gotzon, Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria, (Elkarlanean, 2.000)

Poirot lehen aldiz azaltzen denean, ustezko hiltzailea harrapatzeko sei arrasto zerrendatzen ditu, baina zerrenda horrek ez du hiltzailea **atzemateko giltza**. Gillen ustez, bi eratako arrastoak baliatzen ditu Christiek. Batetik, begibistako gauzak: hautsitako katilua, labana... Baina sarri esanguratsuagoak ei dira zerbait idatzita duten arrastoak: paper-puskak, gutunak, mapak... **Pozoina** ere **usu** darabil. Izan ere, Lehen Mundu Gerran erizain izan zen A. Christie, oso ona, eta botika batean ere aritu zen. Aisirako, idazteko astia ematen zion botikak Agathari, baina nahiago zuen erizain izan. Senarrak, ordea, ez zuen emaztea erizain ikusi nahi, inondik ere. Senarra Agatha baino emakume gazteago batekin joango zaio, maitalearekin. Banandu egin nahi duela esango dio Agathari. **Garaitsu hartan** Clara, ama, hilko zaio, eta handik piskatera idazlearen **pasarterik** ilunena **jazoko** da. Bere autoa bidebazter batean azalduko da, istripu bat antza, baina giza aztarnarik inon ez! 11 egun barru hotel batean azalduko da. Ez zuen inoiz argitu zer gertatu zitzaion. Hotelean senarraren maitalearen izena eman zuen!

### Erizain ona

Maitasuna -eta diru-gosea- sarri da hilketarako aitzakia A. Christiren literaturan. Sexua apenas darabilen, baina pertsonaia maitemindua, maiz. Itxura ederreko gizon-emakume ugari sortzen du Christiek, eta maitaleek edadean alde handia izatea ez da oztopo. Agatharen bigarren senarra ere 15 urte gazteagoa zen. Agathak Orient Express itsasontzia hartu zuen Turkiarantz. Ur (Irak) hiriko **indusketara** gonbidatuko dute, eta handik gutxira indusketaburuaren lankidea ezagutuko du, bere bigarren senarra, Max Mallowan. Oso zorionsuak izango dira biak, nahiz tartean Munduko Bigarren Gerra pasa. Gerran ez zen Londonetik ihesi joan Agatha, bertan lan egin zuen bolondres, botika batean. 1939-45 urteetan 10 liburu atera zituen A. Christiek, beste 3 antzerki-lan idatzi eta moldatu, eta beste 2 liburu geroko gorde. 1944an 50 mila hitzeko *Absent in The Spring* 3 egunetan idatzi zuen! Baina gerra latza izan zen Agatharentzat. AEBetatik autore-eskubideengatik jaso beharreko sosa ez ziren heltzen, eta halere, sos horiei zegozkien zergak ordaindu egin behar zituen Ingalaterran. Gainera, **suhia** hil zitzaion. Gudalostean, arkeologia ardatz hartuz, *Come, Tell Me How You Live* liburua aterako da. Ez zioten argitaratu nahi, ez zelako misteriozko nobela, baina oso ondo saldu zuten.

Horrez gain, AEBk eta Ingalaterrak A. Christiren zergen **afera** konponduko dute, irakurleak asko ugalduko dira, eta jarraitzaile berriak azalduko dira telebistari, zineari eta *The Mousetrap* antzerki-lanari esker. 1971n Britainiar Erresumako Dama izendatu zuten. Esan bezala, 1976an hil zen.



Aurten ere taularatuko du Txalo taldeak antzerki-lan hau.

**AFERA.-** Arazoa.

**AMA-ZENA.-** Ama izandakoa. *Difunta madre*. Era berean: aita-zena, seme-zena, amona-zena...

**ASTEBURU PASA.-** Asteburua igarotzera. *A pasar el fin de semana*.

**ATSEDENALDI.-** *Intermedio*.

**ATZEMAN.-** Harrapatu. *Atrapar*.

**EGITASMO.-** Ekimena. *Proyecto*.

**ELEBERRI.-** Nobela.

**EREMU.-** Esparrua. *Ambito*.

**ÉTXE BERRIRA ALDATU.-** Etxe berrira joan. *Trasladarse a la nueva casa*.

**EUSKARATU.-** Euskarara itzuli. *Traducir al euskara*.

**GARAITSU.-** Gutxi gorabehera garai hartan. *Por aquella época más o menos*.

**GILTZA.-** Gakoa. *Clave*.

**HAGITZ.-** Asko.

**HEDAPEN.-** Zabalkundea. *Proyección*.

**HERKIDE.-** Herri berekoa. *Compatriota*.

**INDUSKETA.-** *Excavación*.

**JAZO.-** Gertatu. *Suceder*.

**OINARRITU.-** Oinarritzat hartu. *Basar(se)*.

**OINORDEKO.-** Ondorengoa. *Descendiente*.

**PARADA.-** Aukera, okasioa.

**PASARTE.-** Gertakaria. *Acontecimiento*.

**PLAZARATU.-** Kaleratu, argitaratu. *Publicar*.

**POZOIN.-** Edena. *Veneno*.

**SALTZEAR.-** Saltzeko zorian. *A punto de venderse*.

**SUHI.-** Alabaren senarra. *Yerno*.

**USU.-** Maiz. *Frecuentemente*.

**ZAHARTU AHALA.-** Zahartu ahalean. *Conforme fue envejeciendo*.



# “Agatha Christieren nobeletatik abiatuz proposatu nahi dut zerbait



Argazkia: Mikel Saiz

Euskaldunon Egunkaria

2000-11-19

BILBOKO KORAL ELKARTEAREN OPERA

Bernardo Atxaga

Idazlea

baina Juan Carlosekin hitz egin behar dut lehenbizi. Galdera da ea hori egin daitekeen. Musikan egin daiteke horrelako zerbait? Iguar bai. Oharrak hartzen ari naiz. Adibidez, eurek emaldi serioa prestatuko dute, eta entzuleak irigarri hartuko du, nork desafinatuko duen zain. Joko hori egin genezake agian, agian soka horrek emanen du zerbait.

## Orain arte egin dituzun proiektuen aldean oso bestelakoa da; erronka da zuretzat?

Erronka da niretzat. Gero egin nahi nuke egunen batean, Juan Carlosi esan nion, opera dramatiko bat. Ez XIX. mendeko opera historioniko horietako bat, ez. Beste era bateko opera bat, poemekin eta hola, baina oraingoz ez dakit aukera hori izango dugun. Nik oso barruratua daukat ni naizela ofizioz idazlea, eta hartzen dut oso estuki; esan nahi dut, urte asko daramatzat eta badakit, nire ustez, zer den ofizio hori, eta badakit berritasun asko dituela, badakit proiektu berri bat onartu eta batzuetan oso tarte txarrak pasatzen direla, baina nik uste dut aurrera egiteko modu bakarra bizitza honetan dela ez dakizuna egiten ahalegintzea.

Egin nuen opera bat, aspaldi, libreto bat, erabat siniestroa, baina hura ezin da egin. Ez zen atera orduan. Oso estetika siniestroa zen, iluna. Oso espresionista; siniestro baina espresionista. Bilbon egin nahi izan genuen opera hori, baina ez zen atera. Ni ekonomia ikasketak bukatzen ari nintzen.

## Baina ez ote da arrisku handiegia izanen?

Bai, hori da, abenturetan sartzea, arriskua hartzea, arriskurik gabe ez baitago **sormenik**. Hori da nire ofizioa, eta egingo dut. Juan Carlos berdin, aspalditik ezagutzen dut eta oso ondo moldatzen naiz berarekin. Asko apreziatzen dugu elkar. Urtebeteko epea dugu. Hasi berriak gara, oraindik arazo hori dut, ez dudala entzulea ikusten. Hori da lanaren zera, gorpila martxan jartzea pixkanaka. Baina uste dut bide hori jarraituko dudala. Uste dut polita izanen dela, ilusioa dut, gauza berriak beti dira bizigarriak.

Asteasuko idazlea **arduratuko** da operaren libretoaz. Oraindik gauza asko daude zehazteko, baina badu ideiarik buruan Bernardo Atxagak.

## Proiektua abian jarri duzue dagoeneko?

Oso bide luzea egin du proiektu horrek, eta azkenean heldu gara proiektu horren, esango nuke, **orekara**. Juan Carlos Perez izanen da musikaria eta nik egingo dut libretoa. Oraindik arazo bat dago, egia esanda; arazoa da niretzako, jakin behar dut entzulea zein den, entzuleak ikusi behar ditut, eta oraindik ez ditut ikusten. Hor ere, askotan esaten dute entzule askotakoak direla, umeak, adinekoak, musikazaleak eta ez zaleak, familiak... Horrek kezkatzen nau.

## Erabaki al duzu jorratuko duzun gaia?

Proposatu behar diot Juan Carlosi zergatik ez naizen ni Agatha Christieren paperean sartzen, eta zergatik ez dugun egiten nolabait istorio bat, libreto bat, Agatha Christieren nobelen alderditik abiatuta, eta hori musikarekin lotuta. Esate baterako, koruan ez dago hiltzaile bat, baizik eta desafinatu egiten duen norbait, eta esan genezake **ekitaldi** guztiak hondatu egiten dituela. Entseguetan ezkutatu egiten da, iristen da egun berezi bat eta orduan berriro azaltzen da, eta desafinatu egiten du eta **zapuztu** egiten du emanaldia. Horren bila abiatu, nor den eta nor ez den. Hori ari naiz pentsatzen. Egin nahi nuke zerbait alaia, nahi nuke benetako suspense bat sortzea,

**AHALEGINDU.**- Saiatu. *Intentar.*

**ARDURATU.**- Encargarse.

**BESTELAKO.**- Desberdina. *Diferente.*

**EKITALDI.**- Actuación.

**ERRONKA.**- Reto, desafío.

**GURPIL.**- Pirrila. *Rueda.*

**JORRATU.**- Landu. *Elaborar, trabajar.*

**OREKA.**- Equilibrio.

**SORMEN.**- Sortzeko ahalmena. *Creatividad.*

**ZAPUZTU.**- Hondatu. *Estropear.*

**ZERA.**- Kontua, gauza. *Cuestión.*

# Koldo Zuazo Euskararen sendabelarrak



KOLDO ZUAZO  
*Euskararen sendabelarrak*  
Alberdania 2000

*Maita nazazu gutxiago ta  
Goza nazazu gehiago*

*(Anje Duhalderen "Etxeko Andre" kantutik jasotako hitze-  
kin adierazi du K.Zuazok bere mezua)*

**K**oldo Zuazo irakasleak "Euskalkiak gaur" (1998) lan esan-  
guratsuan euskalkiak sailkatzeko ezaugarriak eta gaur  
egun diren euskalkiak erakutsi zizkigun. *Euskararen senda-  
belarrak* (2000) saiakerarekin euskara batua eta euskalkien  
elkarbizitza zertan behar duen izan eta orain arte egin diren  
hutssegiteak salatuz euskalkiei zor zaien begirune eta erabi-  
lera-esparruak eskatzera dator.

*Euskararen gaitzei aurre egiteko, euskalkiak lantzea eta  
erabiltzea da sendagaietako bat*, dio Koldo Zuazok lan  
arrunt interesgarri honetan. *Euskararen alde nagoelako  
nago euskalkien alde, euskararen osasuna, euskararen kali-  
tatea eta euskararen etorkizuna dagoelako jokoan*. Argiago  
esaterik ba al dago?

Hamaika hizpide emango duen euskaldun guztientzako  
liburu aproposa.



# Kaixo!

**L**iburu hau euskararekin  
Linteresa duen ororentzat  
idatzi du Garikoitz Knörr de  
Santiagok: edozein mailatan  
ikasten ari direnentzat,

Euskal Herrira turismo egitera etorri nahi eta bertako hiztu-  
nak harrিতuta utzi nahi dituztenentzat; oso oinarrizko maila  
izan eta umeei gauza batzuk euskaraz esateko gaitasuna  
lortu nahi duten gurasoentzat, euskara interesatzen zaien  
erdaldunentzat... etab. Azken finean, euskaraz moldatu  
edo elkarrizketa motzen bat ulertzeko gauza izan nahi  
dutenentzat.

Horretarako, egunero erabiltzen ditugun esaldi batzuk  
aukeratu dira, egoeraren arabera sailkatuta. Hauxe da libu-  
ruaren zatirik garrantzitsua.

Gainera, Henrike Knörr irakaslearen hitzaurrea dakar,  
gramatika sail motz bat eta ahoskera-gida. Bukaeran,  
berriz, bi hiztegi, gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania,  
esaldietan jasotako hitzekin eta erabiltzeko moduko beste  
batzuk erantsita.

Testu guztiak idazteko garaian kontuan hartu dira  
Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak.

Ez da, beraz, euskara ikasteko metodoa eta ez du hiz-  
kuntza ikastea saihestsi nahi. Egilearen ustez, oinarrizko eza-  
gutza lortzeko balio dezake, baita ikasitakoaren gainean  
aurrera egiteko ere.

Hona hemen liburuaren erreferentzia zuzena:

Garikoitz Knörr de Santiago. *Kaixo! Manual de conver-  
sación castellano-euskara*. Con introducción general, gra-  
mática básica y vocabulario. Txertoa argitaletxea, 2000.

## Euskaltegiak irrati-iolasean

**U**tarrilaren hamazazpian jarriko da martxan Euskadi  
Urratiak eta HABEK elkarlanean antolatu duten  
euskaltegien arteko lehiaketa. Astero astero, asteazken oro,  
Euskadi Irratiko "Lauretan Babel" saiok bidalitako lankidea  
euskaltegi batera joango da, bertako talde batekin jolas  
egitera. Taldeko irakaslearekin batera, ikasle taldeak froga  
batzuk gainditu beharko ditu, sormena, umorea eta, batez,  
ere jolas egiteko borondatea erakutsiz. Guztia, arratsalde  
gozoa pasatzeko asmoz, bai irratian eta baita euskaltegian  
ere.

Astero euskaltegi bat izango da protagonista, eta  
ikasturtearen amaieran, ekainean, bi talde onenen arteko  
finala jokatu da.

Euskara erabiliz jolas egin, euskaraz gozatu; horixe  
helburua. Urtarrilaren hamabitik aurrera, asteazkenero,  
arratsaldeko lauretatik aurrera Euskadi Irratian.



# KULTURONTZIA

## San Sebastianak Danbor Joka

**D**onostian ez ezik, Azpeitian ere izango da nahikoa danbor-hotsa San Sebastian bezperan eta egunean. Azpeitira **joatekoak bazarete**, jakin sokamuturra ere izango dela.

Nafarroako zenbait herritan san Sebastianak ere ospatzen dituzte: Lakuntzan, Tafallan, Andosillan eta Zangozan.

### ZEIN DA DANBORRADAREN JATORRIA?

#### DONOSTIAKO DANBORRADA

Joan den mendearen hasieran, goizaldero, eguna argitu baino lehen, Parte Zaharreko **okindegietako** langileak Trinidadeko San Bizente eta Kainoietan izeneko iturrietara joaten ziren kupelak urez betetzera. Baina ez okinak bakarrik, beste batzuk ere horixe bera egiten zuten: goarnizioko militarrek, etxeokonde **goiztiarrak**, obretan lanean ari zirenak...

Ordu horretan pasatzen ziren militarrek, **harresi** aldera, danborrak joz, goardia-txanda egitera. Eta militarren danborrekin batera, iturrian ura hartzeko zain zeudenak hasten ziren, txantxetan edo, haien erritmoan beren kupeltxoak **astinduz**.

San Sebastian egun batean, besterik frogatzen ez bada, 1836ko urtarrilaren 20an, sortu lehen danborrada. **Eguna zabaldu** baino lehen, jende-mordoska azaldu zen Soziedade eta Sagardotegietatik iturri-ondotan zeudenen ingurura.

Militarrak, beti bezala, beren danborrekin martxan zihozazela, hasi ziren iturri ingurukoak ere kupelak jotzen, txantxetan edo, militarren erritmoarekin batera. Horrela hasi zen danborrada famatua, Donostia bisitatu, okupatu, zapaldu, eta porrokatu zuten militarrei irri eta **iseka** eginez.



Ea aurkitzen duzun Azpeitiko danborradaren jatorria zein den. Hala bada, idatz ezazu tarte honetan eta bidalguzu. (Informazioa lortzeko jo ezazu *Azpeitia zer?* Herri-aldizkariaren 26. eta 83.zkira eta *Euskaldunon Egunkaria* 94 eta 97ko urtarrilaren 19ko aleetara)

#### AZPEITIKO DANBORRADA

San Sebastianen berri gehiago, *HABE* Aldizkaria, 270. zenb. 22. or

**ASTINDU.**- Sacudir.

**DANBOR JOKA.**- A toque de tambor.

**EGUNA ZABALDU.**- Eguna argitu. Amanecer.

**GOIZTIAR.**- Madrugador/a.

**HARRESI.**- Murrua. Muro.

**ISEKA.**- Burla, adarjotzea.

**JOATEKOAK BAZARETE.**- Joateko asmoa baduzue.

**OKINDEGIA.**- Panadería.

**PORROKATU.**- Suntsitu. Destruir.

# Lehiaketa



Euskal Herriko hainbat herriko goitzenak dituzte eta horietako batzuk animalia-izenak dira.

Guk bi zerrendatara ekarri ditugu herriak eta animaliak baina nor noren lagun den ez dakigu.


Gure proposamena: herri eta animalien arteko loturak behar den bezala egitea. Erantzuna duzuenean, bidaliguzue eta jasotzen ditugun erantzun guztien artean **HABERen ikas-material bilduma eder bat** zozketa-tuko dugu.

## HERRIA

- Amezketeta
- Andoain
- Ataun
- Azkoitia
- Azpeitia
- Baztan
- Beasain
- Derio
- Idiazabal
- Lazkao
- Leaburu
- Lekunberri
- Lezama
- Lezeta
- Mutiloa
- Orendain
- Zaldibia
- Zegama
- Zerain

## ANIMALIA

- Zapoa
- Tximitxa
- Barea
- Sakela/igela
- Eulia
- Arkakusoa
- Txalburua
- Txerrigorria
- Azeria
- Sagua
- Otsoa
- Eltxoa
- Belea
- Sardina
- Hontza
- Zakurra
- Astoa
- Zorria
- Antzarra





# SALTSAN

**G**ustuko al duzu saltsan ibiltzea? Orduan, tarte honetan egingo dizkizugun prosamenak gustuko izango dituzu. Hori espero dugu, behintzat. Hemen aurkituko dituzu zale-tasunekin zerikusia duten hainbat gauza: lorazaintza, animaliak, brikolajea...

Hasteko, urtarrileko ale honetan gure etxeko edo lorategiko landareak zaintzen saiatuko gara.

Urte hasiera honetan komeni zaigu urte osoko plangintza egitea, hau da, egutegia antolatzea. Zer egin eta noiz egin gure landareak osasuntsu egoteko.

Garrantzitsuena, garaian garaikoari heltzea denez, goazen errepasotxo bat egitera:

## NEGUKO LANAK (Urtarrila, Otsaila, Martxoa)

### URTARRILA

Urtarrilean, eguzki-izpiek ordu bete gehiago berotzen dute, horregatik esnatzen dira landare batzuk, otsailean loreak emateko. Hotza gustuko duten landareak ondo daudela iruditzen bazaigu, hurrengo negurako gehiago **aldatzea** erabaki beharko genuke.

Abenduko elurra desegiten denean azpian dagoen lur zikina aurkituko dugu: adar zatiak nonahi, hesi-puskak... etab. Lorategiek nahiko itxura txarra izaten dute orduan, batez ere aukera handirik ez dagoelako loreak beren koloreekin gure bista alaitzeko.

Lehenbailehen txukuntzea komeni da, elurrari aurrea hartu eta eguzkiak berotzen dueneko tarte aprobetxatuz.

Urtarrilak duen beste lan garrantzitsu bat Gabonetako zuhaitza kentzea da. **Lorontzian** sartuta erosi badugu, kontuan hartu beharko dugun gauza bakarra zera da: ezingo dugu zuhaitza zuzenean kanpoan aldatu. Etxeko giro bero eta lehorrean ohituta, ezingo baitu kolpetik kanpoko hotza

jasan. Piskanaka egingo dugu, beraz, egokitzea. Lehenbizi, berogailurik gabeko toki babestu batera pasako dugu, **lorontzia** lasto eta plastiko zorroez babestuta. Orratzik galdu ez eta berriak ateratzen hasten zaizkionean aldatuko dugu kanpoan. Bitartean, gutxi ureztatuko dugu, ordurik goxoenetan eta ontzi batean jasotako ura erabiliz.



Hil honetako agenda:

- Zuhaitz eta **zuhaiska hostoerorkorrek** aldatu.
- 10 gradutik gorako tenperaturan **ureztatu**.
- **Erraboila** eta **errizomei** ziria jarri.
- Adarrak garbitu.
- Arrosak aldatu.
- Zuhaiskak **aireztatu**.
- Lurraren azala **goldatu**.
- Zomorroen kontrako tratamenduak ematen hasi.



Otsaila eta martxorako, berriz, egin behar diren lanen zerrenda emango dizuegu. Apirileko alean izango duzue argibide zabalagorik.

### OTSAILA

Hil honetako agenda:

- Lorea eman berria duten zuhaitz eta **zuhaiskak** moztu edo **inausi**.
- Urteko landareak **aldatu**.
- Lurra **ongarritu** eta **goldatu**.
- **Zuhaiskak** kimatu eta txukundu.
- **Soropila** garbitu: hostoak eta beste **hondakinak** lur-**azaletik** jaso.
- Landare **bizikorrek** ureztatu.
- Zomorroen aurkako tratamenduak ematen jarraitu.



### MARTXOA

Hil honetako agenda:

- **Erraboilak** aldatu.
- Belar txarrak kendu.
- Hortentsiak **inausi** eta **ongarria** bota.
- Arrosak **aldatu**, **kimatu**, zaindu eta **ongarria** bota.
- Babesean izan ditugun **lorontziak aireztatu**.
- **Adar-adaska** eta probenak egiteko garaia da.



Animo, beraz, eta hasi lanean! Zuen landareek eskertuko dute.

**ADAR-ADASKA.**- *Esqueje.*  
**AIREZTATU.**- *Airear.*  
**ALDATU.**- *Landatu. Plantar.*  
**AZAL.**- *Superficie.*  
**BIZIKOR.**- *Perenne.*  
**ERRABOILA.**- *Bulbo.*  
**ERRIZOMA.**- *Rizoma.*  
**GOLDATU.**- *Labrar.*  
**HONDAKIN.**- *Resto.*

**INAUSI.**- *Kimatu. Podar.*  
**KIMATU.**- *Inausi.*  
**LORONTZI.**- *Maceta.*  
**ONGARRI.**- *Abono.*  
**ONGARRITU.**- *Abonar.*  
**PROBENA.**- *Acodo.*  
**SOROPIL.**- *Césped.*  
**UREZTATU.**- *Regar.*  
**ZUHAISKA.**- *Arbusto.*



# DENBORAPASAK

## MORSEZ HITZ EGITEA

Gaur egun normala dirudi. munduko beste puntan dagoen norbaitekin hitz egiteko, eskuko telefonoa erabiltzea edo **mezuak** ordenagailuz bidaltzea. Baina morsea erabiltzeko lehen hari telegrafikoa ez da hain zaharra, 1845ean sortu zen.

Urte askoan morsea izan da munduko beste lekuetara mezuak **igortzeko** erabili den hizkuntzarik **eraginkorrena**. Hitz egin daiteke morsez, tresneria bereziz **hornitutako** irrati bidez edo argi-seinaleak bidaliz. Hizkera horren printzipio nagusia oso sinplea da. Hizkiak edo zenbakiak puntu, marra motz eta marra luze **bihurtzen** dira. Morsez irakurtzean DI **ahoskatu** behar da puntu baterako eta DA marra-rako. Adibidez: morsez L da . \_ . . Hau da DI, DA, DI, DI.

### Mezu bat bidaltzea.

Gai horretan **aditua** ez bazara, hasi mezuak **hizki larritan** idazten, hizki batetik bestera tartetxo garbi bat utziz. Ondoren, hizki bakoitza morsera itzuli eta hitzak ondo **bereizi**. Emititzen hasi baino lehen, jarri harremanetan hartzailearekin prest dagoen ikusteko: hasteko seinalea da: emititu A hizkia hiru bider: . \_ / . \_ / . \_

Gero, hasi mezua morsez bidaltzen. Beti abiadura berearekin, **astiro**, lasai, hartzaileak mezua idazteko denbora izan dezan.

Emititzeko kodeak:

- Marra bat, berdin hiru puntu.
- Bi seinalaren artean, puntu bat.
- Bi hizkiren artean, hiru puntu.
- Bi hitzen artean, bost puntu.

**Deskuidorik** gertatuz gero, emititu bizpahiru aldiz E hizkia (.) eta azken hitza errepikatu.

### Mezu bat hartzea

Lanean hasi baino lehen, ikusi zeure boligrafoa ondo dabilen. Gauzez argi-seinaleak deszifratzeko, prest eduki linterna bat, zer idazten duzun ikusteko. Ahal baduzu, K hizkia emititu: \_ . \_ "jasotzen" duzula adierazteko. Eskarmentu piska bat behar da zuzenean itzultzeko. Beraz, onena duzu, mezua morsez idaztea eta gero, lasaiago, deszifratzea. Emisioa bukatzen denean, erantzun R hizkiarekin, . \_ . ,mezua hartua duzula esateko. Eta gero, **nahi izanez gero**, erantzun.

### Morse izadian

### Banderak

Mezu zifratu hori marinan erabiltzen da. Bandera bakoitza hizki bati dagokio. Marraztu 30 zentimetroko kartoizko laukitan. Altxa ondo, adiskideek urrutitik ongi ikus dezaten.



**Bidali ezazu mezu hau morsez:**  
Irakurri eta entzun habe aldizkariarekin

Alfabetoa	Banderak	Morsea	Alfabetoa	Banderak	Morsea
A		• —	N		— •
B		— • • •	O		— — — —
C		— • — •	P		• — — •
D		— • •	Q		— — — • —
E		•	R		• — •
F		• • — •	S		• • •
G		— — — •	T		—
H		• • • •	U		• • —
I		• •	V		• • • —
J		• — — — —	W		• — — —
K		— • —	X		— • • —
L		• — • •	Y		— • — —
M		— —	Z		— — • •
Zenbakiak		Morsea	Zenbakiak		Morsea
1		• — — — —	6		— • • • •
2		• • — — —	7		— — • • •
3		• • • — —	8		— — — • •
4		• • • • —	9		— — — — •
5		• • • • •	0		— — — — —

Ilustrazioa: "Aventuras y descubrimientos en la naturaleza" liburutik, 124.orrialdean.

- ADITU.- *Experto/a.*
- AHOSKATU.- *Pronunciar.*
- ASTIRO.- *Mantso. Despacio.*
- BEREIZI.- *Apartatu. Separar.*
- BIHURTU.- *Bilakatu. Convertir.*
- DESKUIDO.- *Hutsegitea, okerra. Fallo, error.*
- ERAGINKOR.- *Eficaz.*
- HIZKI LARRI.- *Maiuskula.*
- HORNITU.- *Dotar.*
- IGORRI.- *Bidali. Enviar.*
- MEZU.- *Mensaje.*
- NAHI IZANEZ GERO.- *Nahi baldin bada. Si se quiere.*



# LOGIKA-JOKOA DENBOR

Pilik bere familiari buruzko aztarnak eskaintzen dizkizu.  
Beltzez dituzun datuak baliatu, osa ezazu azpian dagoen taula.

- Nire aita ez da **Sebastian** eta ez dago **erretiratua** (jubilatua).
- Nire izeba **Mertxe** da, baina ez da **margolaria**.
- **Kazetariak 63** urte ditu.
- Nire arreba/ahizpa **ikaslea** da, baina bere izena ez da **Ikerne**.
- **Jubilatua** dagoenak **75** urte ditu.
- **Antton** euskaltegiko **irakaslea** da eta **42** urte ditu.
- **Mertxek** ez ditu **27** urte.
- Nire amak, nire aitak baino **bi urte gutxiago** ditu.
- **Margolaria** ez da **Isabel**, baina **40** urte ditu.
- Nire izebaren senarra ez da **Antton**.

Nire familia	IZENA	ADINA	LANBIDEA
Nire aita			
Nire ama			
Nire arreba/ahizpa			
Nire izeba			
Nire osaba			

Gurrutzaga-Gonzalezarren familiako informazioa izanik,  
osatuko al duzu zuhaitz genealogikoa?


- Felisak bi seme eta alaba bat ditu. Eta bost biloba.
- Aitona Tomas da.
- Jexuxek seme bat eta alaba bat ditu.
- Karlosen emaztea Maite da.
- Arantza Jexuxen emaztea da.
- Anak ez du seme-alabarik.
- Arantzaren semea Oier da.
- Oierren arreba Oihane da.
- Maiteren alabak Esther, Olatz eta Eskarne dira.
- Karlosen koinatua Koldo da.



LETRA ERORIAK

Joko honetan behe aldeko letrak goiko laukietan kokatu behar dituzu, adibideetan bezalaxe. Letra guztiak egokiro jarriz gero, arabiar esaera zahar bat aurkituko duzu. Hitzak lauki beltzen artean jarri behar dira, baina lerro-amaieran ez dute silaben araua ezinbestean bete behar: GEL / DITU, GELDIT / U, GELD / ITU, GE / LDITU...

		P						T						X					
		E						N											
		E						A						A					
		U						U						U					
E	D	E	A	I	D	A	A	O	A	E	A	A	N	A	A	A	I	E	A
E	Z	E	N	K	L	A	B	R	N	R	D	I	T	A	G	U	S	I	I
T	Z	P	S	U	N	U	Z	U	T		E	N		E	S	X	T	K	R
		U	Z		N			Z	U	H				Z	T		Z	U	N



**1** Dagoeneko ofiziala da: sei mila milioi pertsona gaude munduan gaur egun. Hamabost urte barne, ordea, zortzi mila milioitik gora izango dira munduko biztanleak. Gehienak (%60) hirietan bilduak gainera. 1900ean hamaika hirik bakarrik gainditzen zuten milioi bateko kopurua; hemendik 15 urtera ehundaka izango dira. Izan ere, biztanlerik gehien izango duten hiru hiriek 28,9, 26,3 eta 24,6 milioi izango dituzte. Zeintzuk? (Hurrenkera horretan)

- A) Tokio / Bonbai / Lagos
- B) Bonbai / Tokio / Lagos
- C) Lagos / Tokio / Bonbai



**2** Harvard-eko unibertsitateak *Ig-Nobel* sariak banatu oh ditu urtero. Aurten Ig-Nobel Ekonomia Saria Moon sektaren sortzaileari eman diote. Arrazoa: ezkontza industrialak asmatu izana. Izan ere, 37 urtetan 36 milioi pertsona ezkondu omen ditu ezkontza kolektiboaren bidez. Bake Saria, aldiz, Britainia Handiko armadari eman diote. Arrazoa?

- A) Maniobra batzuetan, jaurtigaiak aurreztu nahirik, artzilariek Bangl esaten zuten tiro egin beharrean.
- B) Azken hiru urteetan, matxurak direla eta, zortzi urpeko nuklear erretiratu behar izan dituzte.
- C) Armadako gudari guztien kopurua %50era jaitsi da.

**3** Estatu Batuetan eginiko filmen artean ez dira gutxi presondegiaren gaia, nola edo hala, ukitzen dutenak. Izan ere, gizarte-bizitzaren judizializazioa handia da bertan. Zure ustez, zenbat preso dago EEBBetako kartzeletan gaur egun?

- A) 700.000 inguru
- B) 1.000.000 inguru
- C) 2.000.000 inguru

**4** Gure antipodetara joan nahi izanez gero, gutxienez 20.000 kilometroko bidaia egin beharko genuke. Eta zuzen joanda, lurraren erdigunetik igarota alegia, zenbat kilometro lirake?

- A) 5.800 km inguru
- B) 8.400 km inguru
- C) 12.700 km inguru

**5** Europako herrialderik biologikoenak produktu guztien %0,5 ekoizten zuen modu guztiz naturalean laurogeita hamargarreneko urteen hasieran. Gaur egun herrialde horren labore-produktuen %15ak ez du produktu kimikorik batere. Ekoizpen biologikoak, beraz, 30 aldiz biderkatu dute. Zein da herrialde eredugarri hori?

- A) Danimarka
- B) Italia
- C) Suitza



**6** Europako herrialde jakin batean ikerketa ausart bati ekin diote zenbait kazetarik. Hala, Parlamentuaren eraikuntzako 28 komunak arakatu dituzte, guztiz arreta handiz, eta bertan harturiko laginak laborategi serio batek azterrarazi dituzte. Ondorioa: 22 kokaina-aztarna desberdin aurkitu dituzte. Nongo Parlamentuan dihardute arrasto horiek utzi dituzten jaun-andere parlamentariak?

- A) Italia
- B) Alemania
- C) Nafarroa








# ZUZENKETA-ORRIAK

## LOGIKA-JOKOA

Nire familia	IZENA	ADINA	LANBIDEA
Nire aita	Antton	42	Irakasgela
Nire ama	Ikerne	40	Margolaria
Nire arreba/ahizpa	Isabel	27	Ikaslea
Nire izeba	Mertxe	75	Erritaratua
Nire osaba	Sebastian	63	Kazetaria



## LETRA ERORIAK

E	Z	P	A	I	N		A	R	T	E	A	N		A	T	X	I	K	I
T	Z	E	N		D	U	Z	U	N		H	I	T	Z	A		Z	U	R
E		E	S	K	L	A	B	O	A		D	A		E	S	A	T	E	N
	D	U	Z	U	N	A		Z	U	R	E		N	A	G	U	S	I	A



Ezetz asmatu

**1** A) **2** A) **3** C) **4** C) **5** B) **6** B)

*/ Kaslearen koafernoa*



**HAE 310**



# Hizkuntz eskakizunen haritik

Jarraian dituzu 1go hizkuntz eskakizuneko azterketak aisago egiten lagunduko dizuten hainbat aholku. Irakur itzazu arretaz. Lehena irakurmenaren ulermena neurtzeko teknikari buruzkoa da: AAG, hain zuzen. Bigarren pasarte, berriz, idazlanari hobeto aurre egiteko hainbat ohar dituzu. Egia esan, 1go h.e.ko idazlanak ez ezik, beste mailatakoak egiteko ere balio dute.

## **IRAKURMENAREN ULERMENA 1HE: Aukera anitzeko galderak**

1. Fijatu ea tituluak edo izenpeak pistarik ematen dizun. Horretan oinarrিতා gaia zein den jakingo duzu eta autorea edo argitaratu den komunikabidea ezagutu ezkerο gai horren aurrean ze jarrera duen atzemateko moduan egongo zara.
2. Irakurri testua gainetik. Oraingo honetan ideia orokor bat izatea baino ez zaizu interesatzen eta 1go puntuari suposatutakoak baieztatu edo ezeztatuko dituzu. Berdin da ez badituzu hitz guztiak ezagutzen, ez dituzu behar mezu orokorra ulertzeko. Ondo gainirakurtzeko eta hitz ezezagunetan ez trabatzeko trikimailua azkar irakurtzea da. Saiatu bi minututan irakurtzen.
3. Oraingoan irakur itzazu galderak baina ez erantzunak, bestela ideiak nahasteko arriskua duzu.
4. Fase honetan informazio zehatzaren bila zoaz. Galderak aurrean dituzula irakurri testua poliki eta galdera batekin lotutako informazioa aurrean duzunean azpimarratu. Oraintxe da erantzunak irakurtzeko ordua. Alderatu erantzunak azpimarratu duzunarekin eta aukeratu egokiena.

## **IDAZMENA 1HE**

1. Gaia irakurtzen duzunean ondo ulertu planteatzen zaizun egoera: nor zara zu?, nori idatzi behar diozu?, zertarako?, ze harreman duzue? Hau oso garrantzitsua da testu egokia idazteko.
2. Jarri behar dituzun ideiak apuntatu ondoko paper batean eta ordenatu.
3. Ideia horiek esaldietara ekarri eta esaldiak elkarrekin lotu. Fase honetan ez zaitez zuzentasun gramatikalaz arduratu.
4. Testua bukatutakoan berrirakurri Oraintxe da zuzentasunaz arduratzeko momentua.

\* Kontuan izan ematen den informazioa adierazgarria behar duela izan. Gaiarekin lotua.





## ► IKUSIZ IKASI

Atal honetan HIZKUNTZA ESKAKIZUNETAKO idazmenari dagokion atala gainditu duten zenbait idazlanen ereduak bildu ditugu. Eredu hauek aztertuta, aztertzaileak sumatu dituen gorabeheren berri emango dugu, **hobe beharrez egindako zenbait aholku azalduz.**

Jarraian dituzun ereduak 1 eta 2. hizkuntz eskakizunetako idazlan-ereduak dira.

### 1.h.e.

**GAIA:** Bulegoko zure telefono zenbakia aldatu nahi duzu, eta zuzendariari adierazi diozunean, honek hurrengo esan dizu: egiteko eskaria idatziz, eta garbi azaltzeko aldaketa horren arrazoiak zein diren.

<b>ESKAERA</b>	<i>ZUZENDARIJA</i>
<b>ESKATZAILEAREN DATUAK</b>	
IZEN-ABIZENAK: <u>M<sup>a</sup> LUISA GONZALEZ SASTRE</u> LANPOSTUA: <u>TELEFONISTA</u> . NAN zk.: <u>65.917.111</u>	
<b><u>AZALPENA</u></b>	
Zuzendari jauna: <u>Nire telefono zenbakia aldatu nahi dut</u> egunero pertsonaren batek deitzen dit esanez, medikuaren bat behar du, bere semea gaisorik dagoelako eta bere etxera joatea nahi du. Beste egun batzuk, pertsona batzuk deitzen didate zita eskatzeko, <u>uste dut nire telefono zenbakia anbulategi baten antzekoa dela</u> , eta oso astuna iruditzen zait esatea, ezin dugula zitarik eman, hemen, ez daukagula medikurik, hau ez dela anbulategi bat, <u>bulego</u> bat baizik.	
<b><u>ESKAERA</u></b>	
Horregatik, baimena eskatzen dizut nire telefono zenbakia aldatzeko.	
Nire eskaera kontutan hartuko duzulakoan alde zuretik eskerrak emanez, agurtzen zaitut.	
<i>Donostia(n), 1997(e)ko uztailearen 11(e)an</i>	

### IDEIEN ORDENA

Lehenengo arazoaren azalpena eta gero eskaera.

Idazlan honetan lehenengo eskaera egiten da: "nire telefono zenbakia aldatu nahi dut" eta "eskaera" bete behar duenean, berriz, ideia bera errepikatzen du.

Bestalde, azkenengo lerrorarte ez du "bulego" hitza aipatzen. Honek esan nahi du bukaerarte ezin garela egoeraz ondo jabetu.

**Azalpena:** Gure bulegoko zenbakia anbulategi batenaren antzekoa dela uste dut. Egunero pertsonaren batek deitzen dit esanez... Oso astuna...





## 2.h.e.

**GAIA:** Hirian bizi zara eta badakizu hango bizimoduaren berri: presa, trafikoa, kutsadura, zarata...

Honezkeroko ohitua zaude, baina baduzu Udalari egin beharreko protesta bat: nahiz eta etxetik garaiz irten, egunero lanera berandu iristen zara; eta, zure ustez, neurri handi batean Udaletxeak du horren errua, hainbeste semaforo ipini eta beraien artean koordinazio gehiago ez jartzeagatik.

Beraz, behingoz hirigintzako zinegotziari eskutitz bat idaztea pentsatu duzu zeure kexa adierazi eta konponbidea eskatzeko.

Idatz ezazu eskutitza.

### *Jaun txit hori:*

**Goizeko seietan ohetik jeikitzen naiz egunero, hala ere, inoiz heltzen naiz zortziak baino lehen nire lanpostura. Gasteizen bertan bizi izan arren, nire etxetik lantegira joateko, kotxea erabili behar izaten dut urrun dagoelako.**

Lantegira sartzeko ordua sekulan ez dut betetzen, izugarrizko trafikoa topatzen dudalako, eta honek arazo bat baino gehiago ekarri dizkit.

Nik DAEWO lantegian lan egiten dut, eta **jakingo duzunez, bere jabeak japoniarrak dira. Hauen arauak guztiz desberdinak dira, eta ez dute ulertzen lantegira berandu heltzea.** Hau dela eta, joan den urtean lantegiko jabearen abisua hartu nuen, berandu heltzen banintza berriro, nire lanpostua galdu egingo nuela esanez. **Horregatik, gero eta goizago ohetik altzitzen naiz, gaua guztian ez dut lorik hartzen, nire izaera zeharo aldatu egin da, eta stressez beterik bizi naiz.**

Gainera, joan den astean, nire senarrak esan zidan lasaitu egin behar nintzela bestela dibortziatuko egingo zela. Ezin duela jasan etxean dagoen giroa, dio.

Trafikoaren arazoa konpontzeko badago irtenbide bat edo beste: semaforo batzuk kendu edota koordinatu, eta haiek beharrean biribilguak jarri. Garraio publikoa hobetu, eta abar.

Azaldu dizudanez, egoera larrian nago eta konponbide bat aurkitu behar dut nire bizimodua eta izaera lasaitzeko. Ingenieritza ikasketak ditudanez eta Bilboko udaletxean Garraio Sailean egin nuenez, nahi baduzu batzarra bat izan dezakegu nire ideiak hobeto azaltzeko.

*Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez agurtzen naiz.*

### **EGOKITASUNA:**

Idazlea testuinguruari egokitu behar zaio.

**Eskutitz formala** da idatzi beharreko eskutitza. Ahalik eta gutxien joko dugu datu pertsonaletara. Trafikoarekin lotutako informazioan luzatu beharko litzateke, eta laneko kontuetan datu objektiboak eman, gehiegi pertsonalizatu gabe: "dibortzioa", "etxeko giroa", etabar... aipatu gabe.

Idazlanean ilundutako esaldiak desagokiak dira erregistro formalean erabiltzeko.





# Saioa

gure ikasle saiatua

"Guaftekean"



JOSETXO SASTRE

MUSIKA: MUNTZO ETA BELOKI

Saioaren pasadizo honetan euskaltegian egin duten joko bat erakutsi digute. Zuk zeuk ere egin al duzu horrelakorik?



- Eroso sentitzen al zara horrelakoetan?
- Zergatik?
- Zure ustez, zergatik egiten dira horrelako jokoak euskaltegietan?

Bidali zure iritzia. Gogoratu: argitalpenak@habe.org

Kaslearen koadernoa





## ► ADISKIDE GAIZTOAK (6)

Atal honetan jaso nahi izan ditugu erdal mailegu izanik, euskaraz beste esanahi bat hartu duten moldeak, bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) bizirik daudenak baina adiera desberdina dutenak.

Ale honetan,

# ERREPARATU

Bi adiera ditu aditz honek euskaraz:

- 1.- *Ordaindu, osatu*
- 2.- *Ohartu, arreta jarri, sumatu.* Kasu honetan, *zerbaiti edo zerbaitetan*

Adibidez: Errepara ezaiozu gauza honi  
Zer den erreparatu diozue?

Beraz, kontuz ibili aditz honen adiera bikoitz honekin. Gaztelerazko ordaina *reparar* ez ezik *notar, darse cuenta de* ere ba baita. Gainera, azken adiera hau oso maiz erabili ohi da.



## *Euskara Hobetzen EXPLORER eta MP3an* (Oharra)

Euskadi Irratiak eta HABEK **Euskara Hobetzen** irratsaioa gauzatu zuten 1999ko urriaren eta 2000ko ekainaren bitartean. Geroago, lan hori interesatuen eskutan jarri nahian, abenduko HABE aldizkariarekin batera banatzea erabaki zuten. Pentsatu eta egin, 254 irratsaioak bildu eta Cd-rom batean zabaldu dugu guztia, dagozkien testuekin osatuz.

Audioa. Produktu hau ez da Cd-audio arrunta, eta, irratsaio guztiak sartu ahal izateko, MP3 programa bidez komprimatu behar izan dira; beraz, Cd-roma entzuteko, ezinbestekoa da ordenagailuaz baliatzea.

Normalean ordenagailu berritan ez da arazorik gertatuko, badutelako *erreproduzigailu* egokia. Hala ere, kasuren batean gerta liteke ordenadoreak MP3 irakurtzeko programa eskatzea. Horrela gertatuko balitzaizu, kontuan izan posible zaizula programa hori Internet bidez doainik eskuratzea eta horretarako aski zaizula *bilatzailearen* bidez MP3 tekleatu eta bertan eskaintzen den programetako bat zure ordenagailura jaitea.

Testua. Bestalde, kontuan izan Cd-rom honetan ahotsaz gain testuari ere garrantzi handia eman nahi izan zaiola. Izan ere, testuak erraz irakurri eta garbitasun osoz inprimatu ahal izateko, ez da ohizko multimedia programa bat erabili, PC-rako *Explorer* nabigatzailea baizik.

Beraz, ordenagailuko pantailan testua irakurtzeko arazoren bat izanez gero, jakin pantailaren konfigurazioarengatik gerta litekeela. Hortaz, hona hemen bi iradokizun:

Edo pantailaren bistaratzea 800 x 600ean ezarri: HASI menuan EZARPENAK aukeratu, eta KONTROL-PANELEKO BISTARATZEAN ere EZARPENAK klikatu; azkenik, bilatu AURKEZPEN-EREMUA, eta 800 x 600 ezarri.

Edo, bestela, INTERNET EXPLORER programan sartu, eta IKUSI menua klikatzen baduzu, zure ordenagailuak behar duen TESTU-TAMAINA aukeratu, ondo ikusi arte.



## Otsaileko matrikulazioa

Iruñean: urtarrilaren 8tik aurrera

Gasteizen: urtarrilaren 22tik otsailaren 9ra

## Gure liburuak

Ikaslearen Liburuak: 6. urratsa arte

EGA Ikaslearen Liburuak

Esaera Zuhur eta Zahar

Ttanttaka: 5. urratsera arte

Pedro Mari Erraondo

25 urte Iruñean

The logo for 'ika' consists of the lowercase letters 'ika' in a white, sans-serif font, positioned on a yellow rectangular background.

# IKA

## 11 URTE

## EUSKAL HERRIA




• 948 22 22 46 Lesaka • 948 63 77 96

41 60 10 87 Gasteiz • 945 15 43 41

# HADE

## DATU JAKINGARRIAK


### Adin-tarteak ehunekotan



	16-20	21-25	26-30	31-35	36-45	45
95-96	23,78	23,46	20,05	14,65	14,04	4,02
98-99	16,04	21,44	18,47	16,72	20,37	6,96
99-00	13,71	20,12	17,62	16,71	23,33	8,51

■ 95-96 ■ 98-99 ■ 99-00


### Ikasleen jatorria



	Beren kasa	IRALE	Transmisioa
98-99	75,55	8,3	2,34
99-00	71,31	10,59	3,42

■ 98-99 ■ 99-00


### Lan-egoera



	Lanean	Langabezia	Ikasle
95-96	43,42	25,28	31,3
98-99	51,37	22,23	26,4
99-00	56,41	19,42	24,17

■ 95-96 ■ 98-99 ■ 99-00

### Euskara ikasten jardundako ikasleak urteka



Milaka	95-96	98-99	99-00
	44.855	41.753	41.857